

Urrezko eta **zilarrezko** dantzariak



Kultura >> 21

Euskara ikasten ari direnendako diru-laguntza deialdia egin du Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak



Sakanerria >> 6

Elikatzeko arazoak 243 familiatan

Nafarroako Elikagai Bankutik jasotzen dute jatekoa.

Maiatzaren 30ean eta 31n Nafarroako Elikagaien Bilketa Handia.

Ibarreko herri gehienetan bilketa puntuak izanen dira. >>5



Guraso elkarten federazioak inbertsio eske

Ikastetxeetan dauden espazio falta eta azpiegituretan, hobetzeko beharra, nabarmendu dute >>7

Arruazuko Udalak UEMAn sartzea erabaki du >>3



Bihar, 15:30etik aurrera, II. Guaixe Saria rallysprinta jokatu da Olatzagutian.

Euskal hedabideen aldeko motor hotsak >>14

Europako Parlamentua berritzera >>10-11



Hitzaren eta errimaren Sakanako baratza edertzen ari da >>21



Eskaintza zabala Altsasun >>9



Etzi, binakako lasterketa >>15



Arrebotek disko berria du >>20

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Lorea
Lacalle Etxarri
ZORIONAK potxola!
2 urte!! Muxu asko fa-
milia guztiaren partez.



Naroa Otxoa
Garmendia
A ZE TXAPELKETA ona
ortu duzun, jarraitu
orain bezain langile.
ZORIONAK
etxekoan partez.

maiatzak

23-29

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Ingo al deu. Maiatzaren 24an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Epa! Maiatzaren 25ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Demode Quartet.**

Dantza

Ikasturte akaberako jaialdia. Maiatzaren 23an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko Musika eta Dantza eskola.**

Antzerkia

Divinas palabras. Maiatzaren 24an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **El Bardo.**

Bakarrizketa

Buah txabal. Maiatzaren 23an, ostiralean, 20:30ean Lakuntzako ostatuan. **Jon Zubiaga.**

Proiektzioak

Baltoroko trekking-a. Maiatzaren 23an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Juan Gartzandia. Aritu euskara taldea.**

Mendi irteerak

Altsasu-Bakedano. Maiatzaren 25ean, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Iñaki Otxoa de Olzaren oroimenez.

Maiatzaren 25ean, igandean, 11:00etan, Guarreinen, Beriainen.

Bizikleta irteerak

Amurrioko San Migeleko ur jauzira. Maiatzaren 25ean, domekan, 7:30ean Altsasuko autobus geltokitik. 28 km. **Mank-en martxa.**

Erakusketak

Koldo Arnanz arte eskola. Maiatzaren 31ra arte, astegunetan 18:30etik



Altsasuko Gazte 2 Aste ekitaldien barruan areto futbol txapelketa antolatu zuten.

21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Desobediantziatik intsumisiorantz: bide bat. Maiatzaren 23an, ostiralean, 18:00etan Etxarri Aranazko Gaztetxean. **Hizlaria: Eneko Garaialde. EHE.**

El sendero del yoga. Maiatzaren 23an, ostiralean, 20:00etan, Altsasuko Namasté zentroan. **Hizlaria: Jesus Lopez Mindegia "Brihaspaty" yoga maisua.**

Crisis institucional en Nafarroa. Maiatzaren 27an, asteartean, 20:00etan Iturmendiko Aitzkozar elkartearen. **Hizlaria: Joseba Asiron.**

Fueros y Gamazada. Maiatzaren 28an, asteazkenean, 19:30ean Irurtzungo

udaletxean. **Hizlaria: Sergio Iribarren.**

Bertsolaritza

Fredi Paya eta Julio Soto. Maiatzaren 24an, larunbatean, 21:30ean Lakuntzako Lakuntzako Pertza elkartearen.

Tailerrak

Larrugintza tailerra. Maiatzaren 24an eta 25ean, larunbatean eta domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Gazte 2 aste. Maiatzaren 23an eta 24an, ostiralean eta larunbatean, 18:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte

gunean.

Haurren eguna. Maiatzaren 24an, larunbatean, 10:30etik aurrera Etxarri Aranazten.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 23an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 25ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Maiatzaren 26an, astelehenean, 15:30etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak, Arrebote eta Aske!
taldeak, Altsasuko Musika eskola,
Altsasuko Udalaren eskaintza, Jaione Diaz,
Nafarroako Bertso-eskolen eguna...

Esataria: *Alfredo*

>> Arruazu



Arruazuarrak festetako auzatean.

Udalak UEMAn sartzea erabaki du

Litekeena da garagarriaren 14an Tolosan ospatuko den Udalerrri Euskaldunen Egunean sartzea

Maiatzaren 8an egindako bilkura berezian erabaki zuen Arruazuko Udalak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko eta Mankomunitatearen Estatutuak onartzea. Arruazuren aurretik UEMAn Arbizu eta Etxarri Aranatz daude.

Udaletik azaldu digutenez, aurreko legegintzaldian harremanak izan ziren bi erakundeen artean baina Arruazuko Udalak ez sartzea erabaki zuen. Horretarako arrazoia ekonomikoa zela azaldu digu Gorka Ovejero Ganboa zinegotziak: "Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzurako udalak pagatzen duena baino kuota handiagoa eskatzen zuten. 3000 euro inguru eta guk ezin genuen ordaindu".

Halako egoera bat baino gehia-

UEMA, euskararendako arnaguneak zabaltzen

Mankomunitatean kide izateko udalerrriko biztanleriaren %70 edo gehiago euskalduna izan behar da. Sakanan bost udalerririk betetzen dute baldintza hori: Arruazu, Ergoiena, Arbizu, Etxarrieta Urdiain. UEMAn helburua da udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea. Aldi berean, udalerrri euskaldun guztiek bat egini, euskara nagusi den lur-gunea osatu nahidu. Aurreko helburuei lotuta, udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta soziokulturala bultzatzea ere egitekoen artean du UEMAK.

>> Arbizu / Etxarri Aranatz

Berria egunkaria dohainik jasotzeko aukera

Hamabost egunez izanen da, UEMAK euskarazko hedabideen zabalkundearen eragiteko eta Berria egunkari berritua ezagutzera emateko kanpaina

Hala eskatzen duten arbizuar eta etxarriarrek bi astez Berria egunkaria doan jasotzeko aukera izanen dute. Heldu den hilaren 3tik 14ra izanen da aukera hori. Euskarazko hutsezko egunkaria etxean dohainik jaso nahi duenak etxera banatuko zaion esku-orria bete edo 943 304 345 telefonora edo harpidetza@berria.info e-posta helbidera idatzi beharko du (izen-abizenak, telefonoa eta herria eman).

Herenegun izenpetuzuten kanpaina UEMAKo lehendakari Maren Belastegik eta Berria taldeko kontseilari ordezkari Iban Arregik. Aurrenak gogora ekarri zuen udalerrri euskaldunetan nagusiki euskaraz bizi direla bertako herritarrek: "funtzio garrantzitsua bete dute euskararen bizi-raupenerako". Hala ere, udalerrri euskaldunetan erdarazko komunikabideen kontsumoa euskarazkoen gainetik dagoela nabarmendu zuen; "eta horrek nahi edo ez



Arbizuarrek eta etxarriarrek garagarriaren 3tik 14ra eskatu ahalko dute Berria.

hizkuntza jarreretan ere badu eragina". Euskarazko hedabideak babestu, zabaltzeko eta euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko euskarazko prentsa kontsumiterra deitu zituen udalerrri euskaldunetako herritarrek.

Arregik, bestalde, nabarmendu zuenez, "gauregungo gizarte komunikatuan euskarazko hedabideek hizkuntza normalizazio prozesuan duten garrantzia erabatekoa da". Aitortu zuen udalerrri euskaldune-

tan euskaldun askori kosta egiten zaiola euskarazko prentsara jotzea. Berria egunkaria maiatzaren akaberan kioskorra berritua iritsiko zela aurreratu zuen eta aldaketarekin batera potentzialki irakurle berriak erakartzeko eta euskararen normalizazioan eragiten jarraitzeko UEMArekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Berria egunkaria ezagutarazteko kanpaina prestatu zuela azaldu zuen.

ETXE BIZITZA

BEHAR AL DUZU?

MOMENTUA DELAKO
DENON ESKUBIDEA DELAKO

errenta baxuko etxeak 260tik

INFORMA ZAITEZ
634 722 994
www.etxefabrika.com
etxefabrika@outlook.es



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Europa, nora zoaz?

Garai batean amestu genuen hiritarren eta herrien Europa batekin. Uste izan genuen Europa gure arazo askoren konponbidea izango zela. Baina azken hogeituz urte hauetan konponbide izan behar zena arazo bilakatu zaigu. Elite finantzieroak jaun eta jabe egin dira Bruselan eta estatu sozialak gizarte abandonatu duten estatu bihurtu zaizkigu.

Gure etorkizuna erabakitzen duten instituzioek ez dute hiritarren kontrolik, parlamentuak ez du boterarik, ipar eta hego Europa urruntzen ari dira. Tarte "beltzeko gizonen" bixita jasotzen dugu, zenbat ospitale itxi behar diren esanez, zenbat enplegu publiko suntsitu.

Haserrea eta desenkantua zabalduta hiritarren artean,

nola ez? Badirudi igandean egingodiren hauteskundeetan %60ko abstentzioa egongo dela. Eta badirudi igo egingo dela indar eskuindar gogorrenen portzentia ere parlamentuan. Haserretuak eta desenkantatuak etxean geratuko omen dira, garai bateko ametsak ahazturik edo abandonaturik. Horixe litzateke gaur egungo agintarien garaipena,

ametsak abandonatzea baita derrota.

Daukagun ereduarekin ados ez gaudenok eredu hori aldatzeko borrokatu beharko genuke, eta horretarako igandean pausu txiki bat eman dezakegu. Ez gaitetzen etxean geratu, horrek boterean daudenak indartzen ditu. Gure ahotsa parlamentura eramanez ahal izateko bihar par-

te hartu beharko genuke hauteskundeetan. Europa soziala erreperatzearen alde gaudenok baditugu aukerak, kontsolidatuak eta berriak. Gure zaharrek merezi dituzte azken urte duin batzuk, gure umeek merezi dute etorkizun itzaropentsu bat eta guk ametsak behar ditugu, errealitate bihurtuko ditugun ametsak.

barrutik kanpora

"Zu, zuzentzaile!"

Urteko laburpena den argitalpena prestatzen joateko bilera batera huts egiteagatik. To, har ezak zama eta eginkizuna! Herorren-tzat nahi ala ez. Sormena, irudimena, ekimena, nortasuna, askatasuna nahiz hainbat men eta tasun... nola garatu, landu eta jorratu zeregin horretan? Egiteko desatsegina.

Zuzendu. Hizkuntzaren erabilera. Ez norberarena, beste batzuek eginikoa baizik. Sortzai-

leen idaz-lanetan muturra sartu eta okerrenaren bila (beti), hutsegiteen bila, hastea. Ahalegin zain presa biziz.

(Patxadan aritzea ezinezkoa) lortutakoa hankaz gora jartzera. Hobetzeko, nola ez. Nor izangabe, besteen gainetik jarri behar egitekoa burutzekotan. Zaila ikuspegi baikorra erabiltzea. Akatsak non topatu, ehiza zakur trebe, dabilenari ezinezkoa testuaren alde dotore eta onak

baloratzea. Horrek beste irakurkera bat eskatzen du, begi garbia. Zuzenketak zuzentzailea bera baitu ozpintzen, ezkor bihurtzen. Deformazio profesionalik okerrerenakoa: hutsegiteak eta akatsak besterik ezin ikusi eta irakurri izatea. Gozamenarako irakurketak bestelako jarrera eskatzen du. "Halakok hau eta hau esan edo idatzi du. Eta zeinen ederki, garbi eta txukun". Zuzentzaileak holakorik ezin

egin.

Zalantza erabatekoa inguruan biraka. Zuzenduko diot? Adieraziko diot "modu zuzenean" hobeki legokeela? Nola, ordea? Pasatzen utzi? Gure hizkuntzaren erabileran nahiko eskuzabal jokatzena ari gara. Horrela behar omen (adituak dixit) hizkuntzak, izaki bizidunak izaki, etengabe garatzen ari baitira. Izaera eta nortasuna galdu gabe, itxuraldatzen.

Zuzentzeko tentazioa hain da

handia! Beharra bezain batekoa? Orain gutxi kide batek adierazia: "Zure zuzenketei esker bertan zuzenerabiltzen dut". Zuzen dezagun, beraz, zuzen jokatu.



EUSKARA TALDEAIRURTZUN

Aizpea euskara taldea

hara zer dien

Gomendioak zaintzaile nagusiari

Zaintzaileari, zaintzaile nagusiari, denek aipatu baina gutxi aitortzen duten zaintzaile horri.

Zaintzailearen sindromea saihestu daiteke. Ez zaintzaileak bere burua zainduz bakarrik, ingurukoek ere hura zainduz baizik. Izan ere, zaintzailea falta bada, zeinek artatuko du pazientea etxean, berak ematen dion maitasunez eta arduraz?

Horregatik, erriaren faseen ara-

bera, beharrezkoa da tresna edo laguntza egokienak bilatzea, hala nola:

1. Eguneko zentro psikogeriatrikoa: gaixoarentzat pizgarria da; zaintzaile nagusiarentzat atsedena, etengabeko ahaleginetan.

2. Badira autolaguntza taldeak, erriaren sendiak planteatzen dituen arazoak bideratzeko. Zaintzeko lana banatu egin behar da erriaren etxeko artean, ahal

den neurrian. Batzuek zuzenean egin dezakete hori; beste batzuek, berriz, zeharka, baina denon laguntza nahitaezkoa da gaixoaren zaintzan.

Oro har, zaintzaile nagusia pertsona bera da eta zenbait euskarri baliak daiteke:

-Harreman zuzena eta pertsonala oheburuko medikuarekin. Berak argituko dizkio izan ditzakeen zalantzak erriaren gaixota-

sunari edo bere eragozpenei buruz, baita lagundu ere erabakiak har ditzan.

-Harremana gaixoen familien elkarte batekin (NAFE), Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoekin eta gaixoen beste familiekin. Horiekin denekin mintza daiteke zaintzailea eta orientatuko dute bere bidean, arituak baitira antzeko lanetan.

-Plangintza ekonomikoa gastu

ezohikoei aurre egiteko: beste profesional batzuen kontratazioa, aparatu ortopedikoak, nutrizio-gehigarriak, etab.

-Bere lana eramangarriago egiten dieten gauzak edo egoerak eskuratzea: jantzi bat, liburu bat edo ibilaldi bat kalean zehar...

Josefina Arregui klinika

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



SAKANA

Jakien Bankuak 243 familia elikatzen ditu

Maiatzaren 30ean eta 31n Elikagaien Bilketa Handia eginen da

Finantza krisiak eragindako egoera ekonomiko makurraren ondorioz oinarrizko premiak ere ezin ase daude familia asko: etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ezin ordaindu, argindarra, gasa edo bestelako fakturei ezin aurre egin. Askok jatekoa ere ez dute eta Nafarroako Elikagai Bankuak emandakoarekin elikatzen dira.

Jaso ditugun datuen arabera Sakanan 243 familiak jasotzen dute Nafarroako Elikagai Bankutik jakiak. Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Sakanako eremuan 75 familia dira. Etxarri Aranatz aldekoan 36, Altsasun Caritasekin 100 bat familiari banatzen die. Olatzagutian eta Ziordian 32 dira.

Bilketa

Maiatzaren 30ean eta 31n, ostira-lean eta larunbatean, Nafarroako

Bilketaren bilakaera Nafarroan

Data	Jasotako kopurua
2012ko garagarriala	57 tona
2012ko abendua	177 tona
2013ko garagarriala	266 tona
2013ko azaroa	401 tona

Elikagaien Bilketa Handia. Nafarroako Elikagaien Bankuaren aldeko bilketa horren bidez galkorrak ez diren elikagaiak jasoko dira, gero herrialdean behar diren familiei banatzeko.

Irurtzunen Coviran eta Eroskiren aurrean jasoko dira elikagaiak. Arbizon, berriz, Eroskin eta elizan eta Altsasun, azkenik, BM Netton, Eroski Centerren eta Eroski Cityn jasoko dira jakiak. Boluntarioek herritarrei Nafarroako Elikagai Bankuaren poltsak banatuko dizkiete denda barruan nahi dutena erosi, han sartu eta irteeran emateko.

Sakana erdialdeko dendetan poltsak utziko dituzte eta bezeroek haietan eman nahi dutena sartu beharko dute eta poltsekin zehaztutako tokietara joan beharko dute.



Irurtzunen jaki bilketa egiten.

Uharte Arakilen jubilatuek artean, Lakuntzan apaiz-etxean eta Etxarri Aranatz musika eskola zaharretan. Boluntarioak 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egonen dira jakiak biltzen. Olatzagutian eta Ziordian parrokiari jasoko dituzte elikagaiak.

Boluntarioak

Bakarren batek bilketan lagundu nahi badu Uharte Arakilgo Donibane jubilatuek artean (Eduardo Gonzalo, 662 137 496) edo Irurtzun eta Etxarri Ara-

naz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin (948 600 694 eta 948 460 752) harremanetan jarri behar du. Burunda mendebaldeari dagokionez, Altsasuko Caritasekin jarri behar da harremanetan.

Sakana eta sakandarrak ezagutzeko txangoa

Igandean Izurdiaga hobe ezagutzeko irteera izanen da

Hainbat jatorritako sakandarrek elkar ezagutzeko aitzakia izanen da etzi Izurdiagara antolatutako txangoa. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak prestatu du irteera eta dagoeneko 40 pertsona inguruk eman dute izena.

Guztiek ere Irurtzungo plazan dute hitzordua etzi, 9:00etan. Handik Izurdiagara abiatuko dira. Elizan harrera eginen die kontzejuko kide batek eta herriaren berri emanen die bildutakoei. Azalpen horien ondoren, forjaren interpretazio gunera bisita eginen dute. Brundarregandik beharrezko azalpenak jaso ondoren, eramandakoa bazkalduko dute. Horrek



Aurreko urteko txangoa.

jolasei utziko die txanda. Txangoa 17:30ean bukatuko da, etxerako buelta hartzen dutenean.

Euskara kontutan 2013an ere Nafarroako Gobernu bere bidean

Hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoaren bideak eta herritarren arteko eskubide desberdintasunak ez du etenik izan

Garbiñe Petriati Ijurak, Hizkuntza Eskubideen Behatoki zuzendariak atzo Nafarroako Ararteko Fco Javier Enerizi pasa den urteko txostenaren berri eman zion, "herritarren bizipenetan oinarritutako diagnostikoa". Petriatik laburbildu duenez, Nafarroako Gobernuaren jardunak ez du aldaketarik izan 2013an eta euskararen aurkako jarrera izan du ezaugarri: euskaltegiak dirulaguntzarik gabe, euskarazko komunikabideak ere dirulaguntzarik gabe, udaletako euskara zerbitzuetarako dirua nabarmen murriztuta...

Hizkuntza Eskubideen Behatoki buruak gaineratu zuenez, "diru-gorabeherarik ez dagoen gaitan ere hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa izan da: Dereduaren hedapena oztopatzen segitzen du; liburutegietan, osasun-zerbitzuetan, epaitegietan, ez du Nafarroako Gobernuak euskarazko zerbitzurik bermatzen, ezta hizkuntza ofiziala den eremuan ere". Nafarroako administrazio-sail guztietan egon ziren oztopoak aurrez aurreko harrera zein telefono bidezkoa euskaraz jasotzeko. Eta ohiko jakinarazpenak, gutunak e-postak, inprimakiak eta abar gaztelania hutsean jaso zituzten herritarrek.

Nafarroako Gobernuak euskal-



Behatoki Garbiñe Petriati.

duneko erakusten duen bazterketa eta gutxiespenaren aurrean, euskaraz kasi eta bizi nahi duten herritarren irmotasuna eta jarrera nabarmendu ditu Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren zuzendariak.

FRONTOIKO TABERNA

948 469 138
ERKUDEN 4 • ALTSASU

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

Erta Elizondo Arruabarrena
ARKITEKTOA

www.arkiterta.es
klik egin!

zugarreta 54, Etxarri Aranatz, 31820_telf: 948 460 444 687 060 787_arkiterta@outlook.es

SAKANA

Mank-ek euskara ikasleendako diru-laguntzak emanen ditu

Euskalduntzen edo alfabetatzen dauden ikasleek ikastaro estentsibo, trinko, barnetegi eta informatika bidezkoak lagunduko dira

Pasa den gariletik aurtengaragarriaren akabera bitartean euskara ikasten aritu diren ikasleek diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Xede horretarako Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 25.000 euro ditu bideratuak. Laguntzak ematerako garaian Mank-ek lehentasuna emanen die langabeei. Onuradunek, dena dela, ez dute 500 euro baino handiagoa den laguntzarik jasoko.

Diru-laguntza eskatu nahi dutenek garagarriaren 2tik garilarren 31ra egin dezakete. Horretarako, eskabide ofiziala bete behar dute eta harekin batera nortasun agiria kopiatu, erroldatze ziurtagiria, asistentziaren edo aprobetxamenduen ziurtagiria, matrikularen ordainagiria eta beste administrazioei eskatutako laguntzen aitortpena



Euskaltegiko ikasleak.

Bete-beharrak

Sakanan erroldatuta egon behar da. Ikastaroaren %80an parte hartu dela frogatu behar da eta, azkenik, Mank-ekin zerga bete-beharrak ordainduta izatea.

gehitu beharko diete. Langabek, gainera, euren bizitza laborala agiri aurkeztu ahaliko dute.

Altsasu

G2A, eskaintza agortu arte



Aske taldekoen kontzertua, Gazte 2 Asteren barruan.

Asteburuan despedituko da Gazte 2 Aste programa, Altsasuko Udalararen Gazteria Sailak zortzigarrenez antolatu duena. Pasa den asteburuko hasiera indartsuaren ondoren 12 urtetik gorako gazte altsasuarrek Intxostiapunta gazte gunean jokoekin lotutako hainbat jardura izanen

Egitaraua

>> **Maiatzak 23, ostirala**
18:00etan Mahai joko txapelketa.

>> **Maiatzak 24, larunbata**
18:00etatik 21:00etara Pantailak: play 3, wii, xbox... eta zezen mekanikoa.

dituzte eskura asteburu hone-tan ere.

Etxarri Aranatz

Haurren egunarekin hasiko da Euskal Astea

Bihar, 10:30etik aurrera ekitaldiak izanen dira

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatutako Euskal Asteari bihar Haurren egunak emanen dio hasiera. EGAK udalaren eta Mugaipere-laguntzarekin prestatu du biharko ekitaldiak. Heldu den larunbatean izanen de Euskal Festarekin osatu da astea.

Egitaraua

10:30ean Haurrendako jokoak.
12:00etan Boirdetxe abere zirkoa.
13:30ean Bazkaria.
17:30ean Irrien Lagunak, Arrantzara dantzan.
Arratsaldean, auzatea.

Arakil

Aralarko erromeriarako izen ematea zabalik

Urtero moduan Aralarko santutegia arakildarren bilgune izanen da egun batez. Aurtengarriaren 8an izanen da. Egitarauari dagokionez, 13:15ean meza izanen da santutegian eta hura despeditzerakoan herri-bazkaria. Bazkarira joan nahi dutenek garagarriaren 2ra arteko epea dute udal-txartela hartzeko. Ibarrean erroldatutakoek 16 euro ordaindu beharko dituzte bazkariagatik, erroldatuak ez daudenak 24. Arakilgo Udaletik jakinarazi dute Irurtzongo plazatik abiatuko den autobusa ere izanen dela.

Irurtzun / Iturmendi / Altsasu

Orreaga fundazioak hitzaldi zikloa antolatu du

Fundazioko kide diren hiru elkarteetan egingen dira asteartetik aurrera

Gure lur nafarraren maitale diren pertsona, kultur elkarte eta gizarte-kolektiboetarako "topatzeko gune" bat bultzatzeko asmoz sortu zen Orreaga fundazioa duela 17 urte. Zenbait ekimenetan lagundu eta beste batzuk antolatu ditu fundazioak. Azken horien artean dago pasa den urtean Iruñeko Arrosadia auzoan martxan jarri zen Elkartearen eguna.

Aurtengarriaren hartuko du Elkartearen eguna, hilaren azkeneko egunean izanen da. Fundazioaren baitan dauden Sakanako hiru elkarteak (Irurtzongo Iratxo, Iturmendiko Aitzkozar eta Altsa-



Aitzkozar elkarteak Joseba Asieronon hitzaldia hartuko du. ARTXIBOA

suko Zubiondo) antolatuko dute eguna. Baina horren aurretik,

heldu den asterako, hitzaldi zikloa prest dute.

Hitzaldiak

Crisis institucional en Nafarroa
Maiatzaren 27an, asteartean, 20:00etan Iturmendiko Aitzkozar elkarteetan. Hizlaria: Joseba Asiron.

Fueros y Gamazada
Maiatzaren 28an, asteazkenean, 19:30ean Irurtzongo udal-txetan. Hizlaria: Sergio Iribarren.

Crisis institucional en Nafarroa
Fueros y Gamazada.
Maiatzaren 30ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlariak: Joseba Asiron eta Tomas Urzainki.

Altsasu



Puzgarria, katxiporreta

Bizipoza ikuskizuna ekarri zuten atzo Burunda pilotalekura Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek. Bildutako laguntza izan zuten Panpoxa furgonetaren matxurari eta bestelakoek aurre egiteko. Altsasuko Gazte Asanbladak antolatu zuen emanaldia, puzgarri berri bat erosteko. Kideak akaberan eszenatokian agertu ziren, autogestioa eta asanblada pankarta aldean zutela bildutako guztiei eskerrak emateko.

Irurtzun / Etxarri Aranatz / Altsasu

Diru maleta, ustelkeriaren ikur

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako Mugitu! Mugimenduak (MIM) Maletin Deunaren eguna ospatu zuen larunbatean eta haren bidez azpiegitura hori "ustelkeriatik garatutako proiektu iluna dela ozen eta argi salatu" nahi izan zuten. Ustelkeria horren ikur gisa AHTko lanak sustatzen dituzten hainbat alderidiren egoitza parean eta toki publikoetan dirua gainezka egiten zuten eta AHTri bai zioten maletaxoak zintzilikatu zituzten. Halako bina Irurtzunen eta Altsasun zintzilikatu zituzten eta beste bat Etxa-

rri Aranatz.

MIMtik salatu dute AHTkolanak "Milaka milioiren xahuketa eta lurren txikizioa izateaz gain, AHTa proiektu hondatzaile bezala ari da indartzen, zein, osasungintzan, hezkuntzan eta zerbitzu sozialen murrizketasendoen testuinguruan geure poltsikoak hipotekatzen ari den harri pisutsua dugun". Maletekin "eraikuntza enpresa handien eta arduradun politiko batzuen elkar hartzea" salatu zuten. Eraikuntza enpresa handien lobbyak administrazioei egiten dien presioa ere nabarmendu du Mugitu!k.



Larunbatean Maletin Deunaren eguna ospatu zuen Mugitu!-k.

Azpiegitura horren finantziarioarekin etekina ateratzen duten bes-

teak banketxeak direla ere salatu zuten AHTren aurkakoei.



SAKANA

Inmatrikulazioei buruzko jardunaldiak, gaur kitto

Nafar Ondarearen Defentsaren Aldeko plataformak eliza katolikoaren inmatrikulazioei buruzko aurreneko jardunaldiak antolatu ditu. Aurreko bi ostiraletan elizak bereganatu dituen ondasun horiez aritu dira adituak zuzenbidearen eta moralaren ikuspegitik. Jardunaldiak ixteko, gaur, historia ikuspegitik aztertuko dituzte inmatrikulazioak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Juan Madariaga egjarretarrak eta Joseba Asiron arte historian doktoarek. Mariano Ferrerrek gidatuko duen saioa gaur, 19:15ean izanen da, Iruñeko gurutze institutuan.



Juan Madariaga.

Guraso elkartearen federazioek hezkuntza azpiegiturretan inbertsioak eskatu dituzte

Nafarroako 30 ikastetxetan dauden espazio falta eta azpiegiturretan hobetzeko beharra nabarmendu dute

Sare publikoan nagusi diren Herrikoa eta Sortzen guraso elkartearen federazioak, hezkuntza komunitatea osatzen duten familien izenean, 30 ikastetxetan espazioa zabaltzea eta hobekuntzakegitea eskatu zuten asteartean. Bi erakundeetako ordezkari ke esan zuten, "panoramahau ez da soilik Nafarroako Gobernua-ren plangintza eta kudeaketa txarraren ondorio soilik. Ongi diseinatutako estrategia da, zentro publiko-en kaltetan ikastetxe kontzertatuei mesede egiteko".

Gurasoen ordezkariak nabarmendu zuten familien bi herenek irakaskuntza publikoaren alde egiten dutela eta larritzat jo zuten gobernuak hezkuntza publikoari lehentasuna ez ematea. Hezkuntza Departamentuaren zenbait jokabide salatu zituzten. Batetik, zonifikazio bakarra, ikasleei bere herri edo auzoan hezkuntza publikoko plaza bermatzea zailtzen duena. Bestetik, eskolatzeko irizpideen malgutasuna, ikastetxe kontzertatuei ikasleak aukeratzeko aukera ematen diena eta ikasturtean zehar beste toki batzuetatik etorritako ikas-



Zelandiko patioan estalitako eremua eta zorua konpondu beharra dago.

leendako plazak ez erreserbatzea baimentzen diena. Azkenik, murrizketak ere gogoan izan zituzten: 700 irakasleez kontratatzea, funtzionamendu gastutan murriztea edota ikastetxeak eraikitzekeo trabak.

Deia

Dauden hezkuntza azpiegiturak berritu edo berriak egitea aldarrikatu zuten Herrikoa eta Sortzen

federazioetako ordezkariak, "ikas-tetxe askotan arazo askoren sorburu baita hori". Arazoak berehala konpontzea eskatu diote Hezkuntza Departamentuari. Ikastetxeen premiak jasotzen dituen txostena ere ondu dute.

Bestetik, nabarmendu zuten hezkuntza publikoak aukera berdintasuna, sexu bereizketarik eza, etxetik gertuko, kalitatezko eta

Txostena eta Sakana

Biurdana ikastetxea. Arakil eta Iruztungo ikasleak hartzen dituen Iruñeko institutua ikasleez gainezka dago eta Iruñea iparraldean beste institutu bat eraikitzekeo eskaera egindute. Horretaz aparte, kirol azpiegiturak eta aterpe baten beharra ere badute.

Luis Fuentes eskola. Lakuntza-ko ikastetxe publikoan gela handiagoak eta patioan estalitako eremua behar ditu.

Zelandi eskola. Altsasukoan patioan estalitako eremua eta haren zorua konpondu behar da.

Domingo Bados eskola. Olazagutiko zentroan igogailua falta da eta patioan estalitako eremua behar du ikasleei aterpe emateko.

berritzaileak diren hezkuntza proiektuak eta inplikaturako profesional taldeak bermatzen dituela, horregatik, hezkuntza publikoaren aldeko hautua egiteko animatu zituzten familiak.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

EMAN BOTOA **ehbildu** herrikerabaki



Nonerabili

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

2 produktu erosita, % 10eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupitua doan.

EROSKI CITY

ALTSASU

Eskaintza kanpainaren arabera.

SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



SAKANA

Erraldoi txikien konpartsa handia

Tailerretan egindako buruhandi eta erraldoiak kalera atera ziren larunbatean, Altsasun

“Irudi hauek ikustea merezi du”, esan zuen Juan Manuel Herrero, Zapak, erraldoi eta buruhandi txikien kontzentrazioaren hasieran. Bi urtez ikastaroak eman ondoren sortutako irudiak erakustea nahi zuen Zapak, baina erakusteta gela bat hotzegia zela pentsatu zuen. “Umeei eta irudiei protagonismoa ematea nahi nuen, horregatik erraldoi eta buruhandi txikien topaketa hau egitea erabaki genuen”. Erraldoi eta buruhandi txikiekin batera Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsa eta gaiteroak atera ziren.

Piratak, momotxorroak, pertsonaia mitologikoak, olagarroak, errege-erreginak... irudimenak ematen dituen edozein pertsonaia bildu ziren Altsasun. Hamabost buruhandi txiki baino gehiago eta hiru erraldoi txiki atera ziren; haiekin batera Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsa. Irudiak egiteko bederatzita edo hamar larunbata behar izan dituzte, bi ordu eta erdi egun bakoitzean. “Hasieran



Juan Manuel Herrero Zapak antolatu zuen erraldoi eta buruhandi txikien kontzentrazioa.

umeez ez dute pertsonaia ikusten eta jarraitzea kostatzen zaie, baina pixkanaka irudia ikusten dute eta ilusioa hartzen dute”. Ondoren, kezka beste batzuk dira: “asko pisatzen dutela esaten dute, horretarako babarrunak jan beharko dituzte”. Zenbait guraso edota aitona-amonek ikastaroetan errepikatzen dute: “bat egin dutenez, beste ume bati egin nahi diote”.

Konpartsen etorkizuna

Larunbat goizak “sakrifikatu” zituztela esaten zuten gurasoek, baina ondorioak ikusita merezi zuela esan zuten. Umeak pozik zeuden buruhandiekin jolasean. “Nik nahi dut buruhandiekin disfrutatzea, apurtzea, horrek esan nahi duelako gustura daudela”, azaldu du Zapak. Iortia Kultur Gunean eguerdian bildu ziren. Ondoren, Zumalakarregi plazara

joan ziren. Foru plazan amaitu zuten kontzentrazioan, San Juan kalean geldiduna eta dantzak egin ondoren. Buruhandiak “miniaturak” izan arren, handiek bezala jotzen zuten.

Erraldoiak eta buruhandiak berriz kalera ateratzea eta mantentzea nahi zuen Zapak. Tailerren bidez lortu duela gaineratu du: “umeak konpartsa ofizialekin ateratzen dira, interesa dute”.

>> Olatzagutia

Plaza loretua

Aurreko hiru urteak euriagatik Erburua kirolegian egin ziren lore eta landare azokak. Baina domekako eguraldi ederrak San Migel eta Sarasate plazak itxuraldatu zituen eta jendearen etengabeko joan etorria hartu zuten. Askok izan ziren zazpigarren edizioan landare edo loreren bat erosi zutenak. Non aukeratu bazuten bi plazetan hamaika postu baitzeu-

den barreatuta. Eta haiekin batera, eskaintza zabala zuen Sakana Ezgaituen Elkarteara eta gehien bat gomazko eskumuturrekoak saltzen zituzten herriko haurrena. Txikiek, gainera, eskulanak egiteko aukera izan zuten ere. Kultur etxean ere jendearen joan-etorria nabaritzen, Lentzeria eta Literart erakusketek askoren arreta erakarri baitzuten.



Emakumeak loreak gertutik ikusten.

>>

Komunitatea olaztiartzen

Zortzi erakundetako ordezkarik parte hartu zuten www.guaixe.net-eko Komunitateari buruzko saio praktikoan

Asteartean egindako saioan parte hartu zuten olaztiarrek www.guaixe.net atariaren Komunitatea ezagutzeko aukera izan zuten. Sakana hedabidean parte hartzeari zabalik dagoen leihoa da Komunitatea. Edozein sakandari eta erakunderi zabalik dago eta haren bidez bere ekarpenak ibar guztira zabaldu ditzake klik batean. Hala frogatu ahal izan zuten asteartean Olatzagutian. Gainera, jabetuz ziren Guaixe.net-eko Komunitatera igotakoa hedabidearen sare sozialen



Guaixeko Komunitatea ezagutzeko aukera izan zuten talde olaztiarrek.

bidez ere zabaldu zela.

Aurkezpen gehiago

Bierrik fundazioak ibarreko biztanleei Sakanaz sarean euskaraz aritzeko espazio bat eskaintzen die www.guaixe.net-eko Komunitatearen bidez. Olatzagutian eta Irurtzunen egin bezala Bierrik fundazioaren asmoa da Sakana herri gehiagotan Komunitatearen aurkezpen gehiago egitea. Bakarren batek aurkezpena bere herrian egiteko interesa balu bierrik@guaixe.net helbidera idatzi beharko du. Gutxienez sei pertsonako taldea elkartu behar da.

Altsasuko Udalaren eskaintza

Udalak udarako eta ikasturte berrirako bere eskaintza aurkeztu du

Gazteendako berritasunak izanen dira udan eta kirol-eskolen eskaintza bera izanen da. Izen ematea zabalik, 012 telefonora hots eginez egin beharko da

Altsasuko etxeetara bere zerbitzu guztien eskaintzaren berri emanez esku-orria banatu du udalak. Hartan, Musika eta Dantza Eskolaren, kirol-eskolen, kiroldegien, gazteria zerbitzuaren, ludotekaren eta Emakumeen Bilgunearen eskaintzen berri ematen da. Udalaren gizarte eta kultur arloko zinegotzi Ruben Imazek esan zuenez, "ekintza guztiak herritarrei zuzenduta daude. Herriaren bizitza pizten duten jarduerak dira".

Ataboualdeen presakoburu Asun Fernandez de Garaialde azaldu zuenez, euren asmoa da gero eta zerbitzu gehiago ematen ahalegintzea.

Eskaintza

Zelandiko kiroldegiko bazkide egin nahi duenak aurretik bazkide den batekin joaten bada matrikula kuota dohainik izanen du. Beraz, heldu den hilabeteko 1etik 20ra bazkide egiten direnek 75 euroko matrikula aurrez-tuko dute. Zelandiko kiroldegiko azpiegiturak erabiltzeko aukerarekin batera udako sasoiari Dantzalekuko igerilekura dohain sartuko dira.

Horregatik, udako eskaintzan berrikuntzak sartu dituzte eta kiroldegian aurki fisioterapia zerbitzua izanen da. "Langilea aukeratu dago, jarduera martxan jartzeko



Altsasuko udal zinegotzi eta teknikariek aurkeztu zuten udarako eta ikasturte berrirako eskaintza.

baimenaren zain gaude" azaldu zuten Fernandez de Garaialde Laz-

kanok. Zelandin fisioterapeuta lanean hasten denean kiroldegiko baz-

kideek zerbitzu horren tarifetan beherapena izanen dute.

» Udako eskaintza

Kirol jarduerak

Atabo enpresa publikotik eta udal kirol zerbitzutik prestatu dute eskaintza. Igeriketa ikastaro trinkoa garagarrilean eta irailean izanen da. Garilean, berriz, dantza modernoa, aquagym, aquagym leuna, helduen igeriketa ikastarok (hobekuntza eta igerileku txikian), aerodance, multi-kirola, hipika, helduendako irristaketa, zumba eta tai-chi ikastarok izanen dira. Azken lauak berriak dira.

Kirol eskolen eskaintza zabalda

Ostiraletik garagarriaren 6ra arte dago izen ematea zabalik. Haur eta gazteak yoseikanbudo, taekwondo, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, areto futbola, Futbol 8, zelai futbola, atletismoa, pilota, tenisa, irristaketa eta multi-kirol eskolatan izena emateko aukera izanen dute ikasturte berrian. Despeditze ar den ikasturteko eskaintza bera.

Aurreko urteko eskaintzan berritasuna izan zen kirol eskolen matrikula familiaren errentaren arabera ordaindu behar zela. Lau errenta tar- te zehaztu ditu udalak eta horren arabera familiak gehiago edo gutxiago ordaindu beharko du.

Ion Gurutz Lazkoz kirol teknikariak azaldu zuenez, aurrekoarekin alderatuz despeditze ar den ikasturtean matrikulen kopurua mantendu egin da eta udalak diru gehiago jaso du.

Ludoteka-Emakumeen Bilgunea

Bi udal zerbitzuek elkarrekin familia eta lanaren kontziliazioa gauzatzeko Udako Bateratuz programa garatuko dute uda honetan ere. Bateragarria, Dibertigarria zerbitzuaren bi eskaintza egin dira: garagarriak aberan haurrendako eta garilean behar bereziak dituzten gazteendako.

Horretaz aparte, Berdintasun teknikari Jaione Iraolak azaldu zuten Udako Euskaraz programaren hiru eskaintza daudela. Lehena garilean egingen da eta beste biak agorrilean, hamabostaldi banatan. Iraolak azaldu zuenez, multi-kirolean izana eman duten haurrek Udako Euskaraz parte hartzeko ordutegiak koordinatu dituzte. Teknikariak gogora ekarri du familiendako hoberiak eta salbuespenak eskatzeko aukera dagoela.

Ikasketak ez arautuekin eskaintza zabaldu du musika eskolak

Musika ikasketak egin nahi dituztenak maiatzaren 30era arteko epea dute izena emateko

Adar ez ofizial horretan izena ematen duen ikasleak ez du eskolako ikasketak plana jarraitzen. Ikasketak ez arautuak, azken batean, instrumentu bat jotzen ikasteko gogoak duten pertsonen zuzenduta daude. Garai batean bazterrean utzitako zaletasuna berriro hartu edo betiko nahia asetzeko aukera dago orain, titulua duen irakasle batekin.

Jokin Borromeo zuzendariak nabarmendu du aukera interesgarria izan daitekeela martxan dauden musika erakundeendako; banda, txaranga, talde edo abesbatzendako, "instrumentu jakin bat edo ahots kordajakinak hobetzeko balio dezake". Ikasketak direla eta kanpora ikastera joaten direnek musika ikasketak ez baztertzeko aukera ere ikasketak ez ofizialetan izena ematea. Borromeo zuzendariak esandigunez, izena emateko 16 urte beteak izan behar dira eta instrumentua izan behar da. Horretaz aparte, ikasketak

ez ofizialetan interesa dutenek ez dute Hizkuntza Musikalik jakin behar. Klaseak astean behin dira, ordu batekoak. Eta instrumentu bateko alde osoa zuzenduko gutxienez 6 pertsona beharko dira. Ikasketengatik hileroko 24 euro ordaindu beharko da. Talde txikiagoak sortzen badira kuota handitu beharko dela zehaztu du Borromeok. Ikastaroa izena eman eta gero uzten duenak ere ikasturte guztian ordaindu beharko luke matrikula. Zuzendariak oharra egin du, plazak mugatuak dira eta izen ematearen ordena errespetatu da.

Gazteria

Garagarriaren 2tik aurrera Intxostiapunta gazte guneak ordutegia aldatuko du eta astegunetan 18:00etatik 20:00etara egonen da zabalik. Kirol zerbitzutik gazteendako prestatutako jardueraz aparte, Gazteria Sailak ere eskaintza prestatu du udarako. Hala, graffiti eta batukada tailerrak izanen dira udan. Gozamenaz programaren barruan, berriz, ur festa goxoa egingen da. Gainera, bi berritasun ere izanen dira: abentura (tirolina, eskalada eta erorketa askea) eta eguzki eta izarren

behaketa. Blanki Torres teknikariak Atabo enpresa publikoarekin eta Dantzalekuko tabernarekin elkarlanean antolatutako ekintzak zirela azpimarratu zuen.

Teknikariak beste berritasun bat ere nabarmendu zuen, "eskaera bati erantzunez" sortu den Uda Gazte hain zuzen ere. Torresek azaldu zuenez, Udako Euskaraz programaren jarraipena da, 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzenduta eta garilean 14tik 26ra egingen dena. Programatutakoaren barruan akanpada gau bat dagoela aurreratu zuen.

Eskaintza

Altsasuko Udako Musika eta Dantza eskolaren eskaintza da: euskal dantzak, musika instrumentua eta taldeak, hizkuntza musika eta mugimendua. Ikasidai- tezkeen instrumentuen zerrenda da: txistua, gaita, eskusoinua, trikitixa, klarineta, biolina, gitarra, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, tronboia, bonbardino, tuba, saxofoia, eta zeharkako txirula.

**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**

Berria erosi taldea

**GANUZA
SUKALDEAK**
Sukalderako altzariak

**Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak**

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuz@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

**JAVIER
ZELAIA**

Pintura eta igeltsua
Zaharberritzeak
eta obra berria

Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu
konpromezurik gabe

648 143 615 · Altsasu

Europako hauteskundeak

Europa, boto eske

Igandean Europako Parlamentua berritzeko hauteskundeak egingen dira. Europa guztian ia 500 milioi herritar daude deiturik parte har-

tzera, 16.344 sakandar artean. 751 eurodiputatu aukeratuko ditu kontinenteak egun hauetan egindako bozketetan, gure bizitzetan gero eta

eskumen eta eragin handiagoa duen parlamenturako. Krisiaren kontura Europak hartu duen bidea berretsi edo aldatzeko aukera ere badira hauteskundeak.

13 alderdi europarretan txertatu dira kontinenteko 160 alderdi

baino gehiago aurkeztu dira hauteskundeetara. Parlamentarioaren osaerak erabakiko du Europako Batzordeko presidentea estreinakoz. Hauteskundeen ondoren garilaren hasieran parlamentua eratzeko saioa egingen da.

Sakanan oihartzun gutxi izan du kanpainak. PSNk, EAJ-PNVk eta EHBilduk egin dituzte ekitaldiak ibarrean. Azken horrek gaur, 19:30ean, azken ekitaldia egingen du Irurtzunen. I-E eta PP, bestalde, kartelak jarri dituzte.



Oinarrizko eskubide sozial eta demokratikoak bermatzeko ezker koherente eta indartsua

Europako hauteskunde hauetan asko dugu jokoan. Bizi dugun krisi ekonomikoa ez da ezereztik sortu, ez horixe, gauzatu diren politika okerren ondorio da, banku eta enpresa handien esku utzi baitituzte gutxi batzuen onura eta gehienon pobretzea eragin duten erabakiak. Urteak dira PSOE eta PPren gobernuek murrizketa murrizketarengainean besterik ez dutela egiten, Europaren eskakizuna den aitzakian. Eta hala da, baina ezetz ere esan daiteke, gauzak bestela egiteko

asmoa dugula.

Izquierda-Ezkerraren eguneroko lan politikoan murrizketa sozialei eta eskuinaren neurriei aurre egin diegu. Bide honetan tinko eta gogor ibiltzeko Europar hauteskundeetara aurkezten gara ezker anitza-izquierda plural koalizio barnean.

Austeritateak eta martxan jarri diren neurriek pobrezia dakarte, guztion pobrezia, gizarte osoaren pobrezia, horregatik neurri aurrerakoiak dira mahai gainean ditugun alternatiba bakarrak.

Kasu honetan amankomunezko lan sakona egin dugu estatumailan koalizioan gauden talde guztiak. Mobilizazioa, aldarrikatzea, lan soziala eta botoa beharrezkoak dira egoera honen aurrean.

Oinarrizko eskubide sozial eta demokratikoak bermatu behar ditugu eta horretarako ezker koherente eta indartsu bat behar dugu.

Populismoa eta muturreko eskuinaren aurrean, elkartasunezko Europa proposatzen dugu guk. Kapitalaren aurrean jendearen Europa, zentralismoaren



aurrean aniztasunaren Europa, jendearekin bat eginez.

Honetarako Nafarroatik Maite Mola, Javier Barinaga eta Milagros Rubio izanen dira gure ordezkariak ezkerreko zerrenda honetan, mugimendu sozialetan eta kaleko lane-

an urte asko daramatzaten pertsonak dira hauek, guk ere lan bikoitz hori dena, kalea eta erakundeak, lotzen jarraitu nahi dugulako.

Izquierda-Ezkerra
www.izquierda-ezkerra.org
@EzkerraN



Europar indartsu izateko

“Alderdi popularra da Bruselan nafar bat jarriko duen alderdi politiko bakarra”. PPren zerrendako bigarren esana da aurrekoa, Pablo Zalba hautagai eta egungo eurodiputatu aipatuz. “Nafar bat Bruselan jartzen duen boto bakarra PPrena da, eta, horregatik, Zalbak ez du bakarrik PP defendatuko, baita gure Foru Komunitatea eta nafar guztiak ere, zein alderdi politikokoak diren begiratu gabe”. Pablo Zalba Bidegain, nafar eurodiputatu Guaixera idatzi du maiatzak 25eko hauteskundetarako dituen konpromisoak azaltzeko.

Nafarrek jakin behar dute, lehendabizi, gure komunitatea ez dela bakarrik Nafarroatik defendatzen, Madrilen ere egon behar da eta Bruselan ere bai. Bertara soilik PP ailegatzen da. Azken urteetan gure interesak gogor defendatu ditugu eta gaur esan dezakegu lortu dugula vending makinen salmentaren debekua geldiaraztea, 2000 lanpostu salbatuz; Donejakue bide guztiak eta bideetan dauden monumentuen promozioa egin dugu gure ondare historiko kulturala mantenduz; gainera lortu dugu gutxien dute-nendako bideratutako Europako

programa aurten ez murriztea: 3.800 milioi euro izango ditu Jakien Bankuak. Gure baserritarren errentaren %16 PACetik datorkigu; Nafarroak 136,5 milioi euro izango ditu landa garapenerako eta abeltzaintzaren sektorearen %84k laguntzak izango ditu. PAC izugarriko arrakasta izan da, baina asko dago egiteko arlo honetan.

Ezin dugu ahaztu gure herrietan aplikatzen den legediaren %70 Bruselan egiten dela. Gure eguneroko gauza gehienak Bruselatik datoz, susperraldi ekonomikoa eta enplegua daude jokoan eta, beraz,



gure etorkizuna. Horregatik eskatzen dizuet guretzako botoa. Indartsuak izan behar gara Europar, horretarako hautagai onena da Miguel Arias Cañete, eta Europar

Partido Popularra da alderdirik sendoena.

PP
www.pppnavarra.es
@PPNavarra



Ezkerreko aldaketa maiatzaren 25ean zure esku dago

Hurrengo maiatzaren 25ean, bozkatzera joan behar dugu Europar asko jokatzeko dugulako. Gehien-go progresista behar dugu Europako eskuinak ekarri duen langabezia, desberdintasun sozialak eta pobrezia aurre egiteko.

Zure esku dago zure botoarekin gauzak aldatzea. Zure esku dago PPren murrizketak jarraitzea edo Europar aldaketa progresista lortzea kalitatezkoa lanpostuak, soldata duinak eta eskuinak kendutako eskubideak berreskuratzeko.

Hauek dira sozialistak Europar defendatuko ditugun proposamenak:

- Lanpostuak gazteentzat: Gazteentzako lanpostuak sortzeko fonda hirukoiztu 21.000 milioi eurotan, jadanik gure herrialdeko %57 gazteak langabezian daude.

- Familia errenta: familia errenta bat Europako familia guztiak duintasunez bizitzeko.

- Langabezi aseguru: Sozialistek langabeentzat aseguru bat onartuko dugu.

- 50 urte baino gehiagoko langabeak: Europako Fondo Soziala handitzea 50 urteko baino gehiagoko langabeentzako proposatzen dugu.

- Defizita: Malgutasun gehiago defendatzen dugu defizitaren

ordainketan PPren murrizketak langabezia eta pobrezia ekarri dutelako.

- Kreditua enpresa txikientzat: Europako Banku Zentrala langabeziari aurre egin behar dio enpresa txikiei lagunduz eta kredituak emanez.

- Zerga paradisuak: Zerga paradisuak eta zerga amnistiak amaitu behar dira.

- Lan baldintza eta soldata berdinak: Europar lege bat bultzatuko dugu lan baldintza eta soldata berdinak izateko gizon eta emakumeentzat.

- Genero indarkeria: Europar



direktiba bat bultzatuko dugu emakumei babesa emateko eta genero indarkeriari aurre egiteko.

- Hezkuntza eta ikerketa: Hezkuntza eta ikerketa defizitaren kontabilizazioan ez sartzea defendatuko dugu.

- Inmigrazioa: Sozialistek inmigrazioaren arloan politika partekatua bultzatuko ditugu Europa eta Estatuaren artean.

PSN
www.psn-psoe.org
@psnpsoe

Europako hauteskundeak

Herri bat garelako, abertzaleak garelako, ezkertiarak garelako, European behar gaituztelako

Hautestontziak gure zain daude, Europarako ordezkariak aukeratu behar ditugu, eta jakin badakigu Europa urruti ikusten dugula. Baina ondo pentsatuta Europa ez dago urruti, bertan hartzen diren erabakiak guregan eragin zuzena dute. Arazoa da, nork hartzen ditu erabaki horiek? Tamalez estatuek, gehienetan banketxe eta multinazionalen menpe dauden estatuetako ordezkariak.

Hor dugu bozka emateko lehen arrazoia. Batetik, guk ere erabaki horietan hartu nahi dugu parte, eta bestetik erabaki demokratikoak izan behar dira. Baina Europako Parlamentuaren ahalmenak murriztuta daude, European eta Nafarroan hainbat gauza murriztuta dauden bezala. Horixe dago lehen iraultza demokratikoaren beharra, Nafarroan zein European.

Erabaki horietan parte hartu nahi dugula esan dugu, eta horrek izena du, Erabakitze Eskubidea. Erabakitze eskubidea herriei dagokien eskubide demokratikoa da, Euskal Herriari dagokio, guri dagokigu erabakitze eskubidea, pertsonak garelako, herri bat garelako. Europak herrien eta herri-tarron eskubideak bermatu. Europara eramango dugu erabakitze eskubidea, Europara eramango dugu Euskal Herriko bake eta normalizazio prozesua, Europako herrien elkartasuna izango dugulako, gure etorkizuna delako eta PPK, UPNk eta PSNk jartzen dizkiguten eskubide guztien gainetik aske izango garelako.

Pertsonen ongizatea izan behar da edozein politikaren helburua, ekonomiaren helburua, European zein Nafarroan, eta horren jakitun gara. Gure lurralde honek,



Sakanak, gogor sufritu ditu krisiaren eraginak eta krisiari UPNk eman dion erantzuna, edo hobeto esanda, eman ez dion erantzuna. Enpresak itxi dituzte, langabezia areagotu da. Hala ere, Sakanan erakutsi diegu beste eredu bat posi-

blea dela eta European berdinegin dugu.

Ez gaituzte European ikusi nahi, ez gaituzte Nafarroan nahi, gu nafarrak izanda ere, ez gaituzte entzun nahi, baina entzun eta ikusiko gaituzte, European, Nafarro-

an eta Euskal Herriko bazter guztietan. Igandean etxetik irten eta UPNk nahi ez duen bozka eman dugu.

EH Bildu

<http://ehbildu.net/eu/>
@Ehbildunafarroa



Europa berria, Euskadi gehiagorekin, Nafarroa gehiagorekin, demokrazia gehiagorekin

‘Euskadi gehiago, Nafarroa Gehiago Europa Berria’ du lema EAJk. Gure Herriak hurrengo bost urte-otarako izango dituen erronkak “suspertze ekonomikoa eta enplegua sortzea; Bakea eta Bizikidetzatza; eta Euskadirentzat Estatus Politikoa” izango dira, eta hiru erronka horiek “europar dimentsioa” dutela argi dugu. Horieta-ko batzuk dira Europar Batasuna sortu zeneko arrazoi eta helburuak. Eta, belaunaldi osorako ditugun erronkak ere badira.

EAJk ozenki aldarrikatzen du euskal hiritargoak bere etorkizuna European erabakitze duen eskubidea. “Zergatik Luxenburgok bai eta guk ez? Zergatik Letonia, Lituania, Eslovakia, Malta, Txiprek bai, eta guk ez? Eta Eskoziak? EAJk letra larriz idatzitako Demokrazianahi du Euskadirentzat. Erabakitze eskubidea daukagu. Baina, ezer baino lehenago, planteatze-

ko eskubidea daukagu, proposamenak aurkezteko eskubidea. Ez dugu gure ikuskera inposatu nahi, hemen gehiengoa dugun arren. Baina, era berean, ez dugu proposamen planteatzea edo negoziatzea inork eragozterik nahi. Betoak baldin badaude, horo dago Europa. Europa horretarako ere dagoelako. Hori ere bada guk amesten dugun Europa berria, Euskadi gehiagorekin, demokrazia gehiagorekin eta prozedura batekin, demokrazia inork blokeatu ez dezan. Guztientzako eskubide berberak”.

Euskara Europar Legebiltzarrean

Batera, Euzko Alderdi Jeltzaleak euskara eraman du Europar Legebiltzarrera, ‘bertan gera dadin’. “Legegintzaldia hasteko momentuan, akordio bat proposatuko dugu gure hizkuntza osoko bilkurretan erabilia izan dadin. Birritan



esan digute ezetz. Orain, aurreko legegintzaldian eleaniztasunari buruz eta hizkuntza gutxituak babesteko onartu zen txostenean oinarrituko gara. Hori ere, EAJren ekarpenaren bidez lortu da. Seihun diputatutik gora esan

dute baietz, baietz Euskarari”.

“Euskal hiritarrek europar erakundeekin harreman idatziak euskaraz burutzea ahalbidetzen duten akordioak betetzen direla zainduko dugu. Eleaniztasun gaietarako komisarioa nahi dugu, europar

hizkuntza guztiez arduratuko dena. Gure helburua ofizialtasuna delako”, hitz eman du Izaskun Bilbao Barandicak.

EAJ-PNV Nafarroa

www.pvnafarroa.eu
@EAJPNVNafarroa



30€
zona
berritua

no+vello

fotodepilación con láser plano

No+Vello Beasain
Dolare kalea 1 · BEASAIN
943 041 715
beasain@nomasvello.com

Ilea, nahi duenarentzat!

Sakanako Mankomunitatearen kontuen inguruko iritzi trukea

Altsasuko Geroa Bai Mank-en egoera ekonomikoarekin kezkatuta

Kontuek 81.000 euroko aurrezki negatiboa dutela azaldu dute. "Ekonomikoki egoera larria dela uste dugu eta oreka ekonomikoa berreskuratzeko premiazko neurriak eskatzen ditu"

Sakanako Mankomunitateko Kontuen Batzorde Berezia bildu zen atzo eta han kontuak eta txostena aurkeztu ziren. Batzordean dagoen Geroa Bai Unai Hualdekesan duenez, kontuek 80.010,93 euroko aurrez-

kinetonegati boadute. Bilduk babestu zituen kontuak, Geroa Baik ez.

Ibarreko erakundearen finantza egoerarekin kezkatuta azaldu zen Hualde. Esan zuenez, "iritzi garen egoeran, urteko sarrera arruntek ez dituzte gastu korronteak eta zorpetzetik eratorritako finantza karga estaltzen". Eta gogoratu zuen erakunde bat finantza aldetik orekatuta egoteko diru-

zaintzan soberakin positiboa eta aurrezkiak izan behar dituela.

Geroa Baik ez zituen kontuak babestu "bat ez gatozen erabaki batzuen ondorio zuzena direlako. Atez atekoari lehentasuna ematen dion hondakin bilketa sistema berria finantzatzeko pasa den urtean eskatutako 193.000 euroko bi maileguak, esaterako". Kontra bozkatu zuela gogorarazi zuen

Hualdek. "Erabaki hori eta beste faktore batzuk eragin dute gaur egungo egoera, orain arte gertatu ez zena".

Udalean eskaera

Mank-i udalek egiten dioten ekarpenen erdia Altsasuk egiten duela gogorarazi du Hualdek. Horregatik, Altsasuko Udaleko Ogasun Batzordean pasa den urteko kon-

tuak analizatzean Mank-i egindako ekarpena aztertzea eskatu du koalizioak, "udalean izan dezakeen eraginagatik". Gaur goizean egin du eskaera zinegotziak. Aldi berean, Geroa Baitik Mank-eko presidenteari eskatu diote oreka ekonomikoa berreskuratzeko neurriak udalen diru-ekarpen handiagoren bizkar ezegiteko; "une honetan, Altsasun, ezinezkoa da".



Mank: "Epe motzerako finantza egoera positiboa da"

Pasa den urteko Mank-en kontua 87.124 euroko superabitarekin itxi ziren eta diruzaintzako soberakina 194.172 eurokoa dela jakinarazi dute ibarreko erakundetik

Altsasuko Geroa Baik Sakanako Mankomunitatearen ekonomia egoeraz azaldutako kezkar horrela erantzun dio Mank-eko buru Aitor Karasatorrek. Presidenteak Altsasuko Unai Hualderi esan dio erakundearen finantza egoera aztertzeke ezin dela soilik adierazle bakar bat hartu, kontuen itxierako guztiak baizik.

Karasatorrek ukatu egin du Diario de Navarrak atzo azalean adierazi zuena, atez atekoaren ezarpenak defizita sortu zuela. Aldi berean, ukatu egin du Hualdek adierazitakoa, hondakin sis-

tema berria ezartzeko eskatutako maileguen ondorioz sortu zela 80.000 euroko aurrezki negatibo erreala. "Hualdek aipatzen dituen maileguen sortutako finantza karga 2012tik 2013ra 18.071,45 eurokoa izan da. Bi mailegu horiek ez dute sortu aurrezki neto negatiboa".

Mank-etik argitu dutenez, "aurrezki zorpetze gaitasunaren adierazle bat besterik ez da. Mank-ek etorkizuneko betebeharren aurrean sortu duen soberakinarekin zorpetzeko lukeen gaitasuna baloratzea du helburu adierazleak". Karasatorrek argitu du Mank-ek legegintzaldi honetan ez duela mailegu berririk hartuko inbertsioak finantzatzeko. "Beraz, Mank-en ekonomia egoeraz datu

partzialak eta ez-osoak emanaz sakandarrak alertatzea Hualderen jarrera ez eraikitzailea agerian uzten du". Presidentekesan duenez, astearteko bileran jakinarazizizkioten Geroa Bai koari aurrezki neto positibora bueltatzeko gastu arrunta murrizteko egiten ari diren ahaleginak.

Atez atekoa eta egoera ekonomikoa lotu nahia

Geroa Bairen oharraren atzean asmo hori ikusi du Mank-eko presidentziak, ibarreko erakundea politikoki erasotzeko ahalegina. Presidenteak koalizioaren oharraren faltan bota ditu Nafarroako Gobernuak Euskara eta Kirol Zerbitzuetan egindako murrizketak.

"25.000 euro gutxiago izan dira, aurrezki netoaren kalkuluan eragina izan dutenak". Gobernuak eman ez duen dirua udalek jarri dutela gogorarazi du Karasatorrek. Astearteko bileran azaldu bezala, presidenteak berretsi du "Mank-en aurrezki neto positiboa sortzeko neurriak hartu behar badira ez dela udalen bizkar izanen, gastu arruntetan aurreztuz baizik".

Koalizioak atez atekoa aipatu zuenez, Karasatorrek nabarmendu du gaikako bilketa hondakin sistema berriarekin %25etik %82 jasotzera pasa dela ibarreko zortzi herritan. "Horrek min egiten die eta, horregatik, haien finantziatorako maileguak aipatuz

ospea kendu nahi die". Sistema aldaketak Sakana hondakinengai-kako bilketan Nafarroako buru jarri duela nabarmendu du Karasatorrek, "bereziki gai organiko-ek dagokienean".

Mank-etik gogora ekarri dute hondakin bilketa sistema berriak ezarri ondoren hondakin organikoaren Tuterara %22,62 gutxiago eraman zen han trata zezaten. Hala ere, sakandarrak Nafarroako Honakin Partzuerdoari tasa bera ordaindu behar diotela gogorarazi dute Mank-etik. "Geroa Baik horiez du kritikatu nahi izan. Tuterara eraman ez denari dagokion diruaren proportzioa balu Mank-ek bere ekonomia egoera osasuntsuagoa litzateke".



Sakandarren diruaren galeran laguntzea leporatu dio PPK Geroa Bairi

Abstentzioarekin atez atekoaren ezarpena laguntzea leporatu diote popularrek koalizioari

Sakanako Mankomunitatearen ekonomia egoera eta atez atekoaren ezarpena lotu ditu PPK.

Alderdiako Sakanako Eskualde Batzordeko presidente eta Etxarri Aranazko zinegotzi Juan Antonio Extremerak adierazi duenez, "Bilduk higienezaren kontrako sistema hau ezarri

zizun, sakandarren eta PPre borondatearen kontra. Eta prozesu guztian Geroa Baik bere abstentzioarekin babestu zuen, azken unean, berandu, jarreraz aldatu bazuen ere".

Extremerak gogora ekarri duenez, "behin eta berriz eskatu dugu ideia baztertzea eta bere ezarpena geldiaraztea. Ez zedila Mank-en etorkizuna diru publikoaren eramanen lukeen milioietako maile-

guekin hondatu". Inork ez zuela haiekin bat egin nabarmendu du popularrak. "Bitartean, zikinkeriaz betetako kaleengatik herritarak haserre daude eta Mank-eko kutxa hutsik".

**ZURE NEGOZIOAREN
BERRI EMATEKO,
DEITU!**



Sakanako etxe guztietan banatuko den
paperezko bertsioan
eta interneterako
gidan agertuko zara,
EZ GALDU AUKERA!

Jar zaitetz gurekin harremanetan

948 562 107 - 618 882 675

publi@guaixe.net - publicitate@guaixe.net

kirola >>

PILOTA
BAKAIKOA ETA GORRITI AUERRERA: Errekaldetan dabiltzan Joanes Bakaikoa eta Gorriti aurrera egin dute Berria txapelketan

eta final laurdenetarako sailkatu dira. Bertsalderako, Herrien Artek Txapelketan Arbizuk eta Lekunberrik bina berdindu zuten.

Automobilismoa

II. Olazti-Urbasa Rallysprinta bihar!

BIHAR JOKATUKO DA, MAIATZAREN 24AN, LARUNBATEAN, SAKANA MOTORSPORTEK ANTOLATUTA. PROBA 15:30EAN HASIKO DA, BAINA ERREPIDEA 13:00ETAN ITXIKO DA.

Sakana Motorsportek eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatuta, bihar, maiatzaren 24an, II. Olazti-Urbasa Rallysprinta jokatuko da, Nafarroako Rallysprint Txapelketarako proba puntuagarria izanen dena. Errepidea eguerdiko 13:00etan itxiko da, eta proba 15:30ean hasiko da.

5,5 km-ko zirkuituari lau itzuli

Antolakuntzak 5,5 km-ko zirkuitu polita antolatu du, Olaztik herri gunean hasi, Urbasako Altamiraraino igo, Altsasuranzko bideitik jaitsi eta Olaztiraino helduko dena, bihurgunez, aldapaz eta zailtasun tekniko maniobraz josia. Zirkuitu horri 4 pasada egin beharko dizkiote pilotu eta kopilotuek. Tarte labor horretan denetik dago: bidegurutzak, aldapak, espaloiak, maldak edo rasantzak, chicaneak... Gainera, Urbasak beti erakartzen du, eta Altamirako jaisiera proba jarraitzeko toki oso polita izanen da, autoak azkar ibiliko baitira. Beste toki interesgarriak, zaldanzarik gabe, Olazti herri gunea bera da, bertatik pasako baitira ibilgailuak.

35 auto eta inoiz baino sakanadar gehiago

35 auto lehiatuko dira II. Olazti-Urbasa Rallysprintean, parte hartze oso polita. Inoiz baino pilotu eta kopilotu sakanadar gehiago ariko dira, ondokoak tartean: Gariokitz Flores-Iñaki San Migel (Mitsubishi EVO VI), Iban Lopez de Goikoetxea-Lander Mella (Renault 5 GT Turbo), Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga (Renault R11 Turbo), Gariokitz Goñi-Ricardo Garriz (Renault R11 Turbo), Aitor Fernandez-Eneriz Besga (Golf), Andonio Lopez de Sabando-Ekaintz Jaronas (Peugeot 205 GTI), Javier Goikoetxea kopilotua Juan Jose Sanz pilotuarekin (Clio Sport), Iñaki Gastaminza kopilotua Egoitz Korosorekin (Clio Sport), Iker Askargorta kopilotua Isaak Zurbanorekin (Opel Kadett GSI)...

Segurtasuna bermatzeko kasu antolatzailerik

Puntako ikuskizunak jendetza erakarriko duela uste du antolakuntzak. Zale ugari espero dira Olaztin. Proba gertu jarraitzeko aukera izango dute, antolakuntzak horretarako propio prestatutako erremuetan. Hortik kanpo ez koka-



Olaztik kale estuetatik gora eta beheara ariko dira autoak.

tzeko deia egin du Sakana Motorsportek. "Segurtasuna ezinbestekoa da. Kotxe karreraz ari gara. Horregatik antolakuntzari eta segurtasun taldeari kasu egin behar zaio" nabarmendu dute. Halaber, ibilbide barruan ez aparkatzea eta norberak bere zaborra gordetzea, Urbasa parke naturala baita, eskatzen dute. Ikusleak ibilbidean barna koka daitezke, antolakuntzak zehaztutako espazioetan.

Nahiz eta lehendabiziko autoa 13:30ean atera, goizetik zer ikusi egongo da Olaztin. Clinker aurreko futbito pista bilduko dira ibilgailu guztiak, egiaztapenak pasatzeko. Handik banaka-banaka joango dira irteera eremura (Ameztia kalea). Giroa lehen ordutik bermatuta dago. Ongi pasa, ingurunea zaindu eta segurtasun arauak errespetatu!



Futbito pista autoak ikusteko aukera izango da goizean.

Guaixe eta Belexeri laguntza

Sakana Motorsportek Guaixe eta Belexe Sakanako euskal komunikabideen alde egin nahi izan du. Horrela, komunikabide horiek sustatzen dituen Bierrik fundazio-arendako izango da Olazti Urbasa Rallysprinteko sarreran kobratuko den diru kopuru bat. Trukean Bierrik fundazioko kideek sarrera kobratuko dute eta rallysprintaren garbiketa lan guztia egingo dute, larunbatean eta igandean. Norbaitek lagundu nahi badu, dei dezala 948 564 275ra edo jo dezala bierrrik@guaixe.net posta elektronikora.

Bukatzeke, erromeria

Motorraren festa borobiltzeko, Maisuenea gaztetxeak Ingo al deu? taldearekin erromeria antolatu du, 20:00etan, gaztetxean (ikus kultura saila).

Egitaraua

9:00etatik 13:00etara: Ibilgailuen egiaztapen tekniko eta administratiboak eta ibilgailuen aurkezpena Clinker aurreko aparkaleku itxian.

14:00etan: Proba onartutako kotxeen zerrendaren publikazioa.

15:00etan: Lehen parte-hartzailea aparkaleku itxitik atera da asistentzia parkeerantz.

15:30ean: Lehen parte-hartzailearen irteera, irteera gunetik.

19:00etan: Lehen parte-hartzailearen helmugaratzea.

20:00etan: Eraitzen publikazioa eta sari ematea Clinkerren.

Lehen sakandarrendako II. Guaixe saria

Juan Manuel Herrero Zapak diseinatu du II. Guaixe Saria. Urbasan bildutako harriak erabili ditu horretarako, gorpuz gain. Berak sortutako sari eder hori jasoko dute II. Olazti-Urbasa Rallysprintean sailkatzen diren lehen pilotu sakandarrak eta bere kopilotuak.



Ikusleen artean bi bazkariren zozketa

Rallya jarraitzeko gerturatzen diren zale guztien artean 2 lagunendako 2 bazkari zozketatuko dira: Altsasuko Iru-bide jatetxean 2 pertsonendako bazkaria eta Arbizuko Olatzean 2 pertsonendako bazkaria. Sarrera ordaintzearekin batera ikusleek jasoko duten flyer-rean sarirako zenbakia izanen dute. Zozketa larunbatean bertan egingo da, sari banaketarekin batera, eta zenbaki sarituen berri Guaixen, www.guaixe.net web gunean eta sare sozialetan emanen da.

Irristaketa



Unai Villalobos eta Anne Lapuente.

Domina gehiago Sakanara

Amaian jokatutako Nafarroako Pista Txapelketak 5 domina ekarri ditu Sakanara eta Sakana taldeko 12 irristalaritik 8 Espainiako Txapelketetarako sailkatu dira

Sakana Irristaketa Taldeak emaitza potoloak biltzen jarraitzen du. Asteburuan Nafarroako Pista Irristaketako Txapelketa jokatuko da Amaia klubeko pistan. Sakana Irristaketa Taldeak 12 irristalarik hartu zuten parte emaitza bikainak lortu dute, horietatik 8 sailkatu baitira ekainaren 21ean Gijonen jokatuko den Espainiako Pista Txapelketetarako. Gainontzeko laurak, sailkatetik oso gertu geratu dira, bizpahiru postu eskasera. "Oso kontentu egoteko modukoa da. Zorionak guztiei" adierazi du Juli Acebes entrenatzaileak.

Horretaz gain, 5 domina ekarri dituzte Sakanara. Anne Lapuente lehena izan zen 1.000 metro linean eta 2.000 puntuko proban. Eta Unai Villalobosek 500 metro sprint eta 1.500 metro linea lasterketak irabazi zituen eta 4.a izan zen 3.000 puntuko proban.

Atletismoa

Javi Moreno Portugaleten txapelkun

Igandean Portugaleteko IX. Milla (1.609 m) ospatu zen eta Dantzaleku Sakanako Javi Moreno altsasuarra izan zen garailea. Zorionak!

Futbola

Etxarriko jubenilek Ardoiren kontra berdindu

Corellano izango dute hurrengo arerio

Etxarriko jubenilak 2. mailatik lehen mailara igotzeko igoera fasean daude murgilduta. Asteburuan Agoitzen kontra jokatu zuten eta husna berdindu zuten. Saillapenean Agoitzek 7 puntu ditu, Ardoik 6, Corellanok 4 eta Etxarri Arantzek 2. Asteburuan Corellanoren kontra jokatuko dute, Corellan.

Padela

Olaztiko padel txapelketan izena ematea zabalik

Maiatzaren 31ra arte eman daiteke izena

Olaztiko Erburua kiroldegian Olaztiko Padel Txapelketa antolatuta dute beste behin. Bikotekajokaturak. Txapelketa ekainaren 6an hasiko da eta festetan despidituko da. Izena ematea zabalik dago, maiatzaren 31ra arte Erburua kiroldegian bertan edo kiroldegiko telefonora hots eginez (948 564 512). Bertan jaso daiteke txapelketari buruzko informazio guztia.



Triatloia

Maiza Gorlizen

Asteburuan Gorliz Badiako VIII. Triatloia jokatu zen (750 metro igerian, 23 km txirrundulan eta 5 km korrika). Mikel Elgezabal (1:07:52) eta Ibone Sanchez (1:20:06) izan ziren azkarrenak. Juan Luis Maiza 144.a sailkatu zen (1:21:06).

Atletismoa

Goazen txikiak eta handiak elkarrekin korrika egitera!

ANDRA MARI IKASTOLAK I. BINAKAKO LASTERKETA-NAPARPELLET SARIA ANTOLATU DU IGANDEAN, 11:00ETAN, ETXARRI ARANATZEN

Kirolzaletasuna eta elkartasuna bulkatzeko eta Andra Mari ikastola bera laguntzeko lasterketa berezia antolatu dute igandean, maiatzaren 25ean, goizeko 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatzen: Andra Mari ikastolaren I. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria.

Lasterketaren berezitasun nagusia binaka korrika egin behar izango dela da, hau da, haurrak heldu batekin batera egingo du laster. Bere gurasoa, osaba-izeba, lehengusua, bizilaguna, laguna edo dena delakoa izan daiteke.



Txikienek helduekin batera parte hartu beharko dute.

5 maila

5 maila desberdinegongodira: haur hezkuntza (200 m), lehen hezkuntzako 1.go eta 2.mailak (400 m), lehen hezkuntzako 3. eta 4.mailak (800 m), lehen hezkuntzako 5. eta 6. Mailak (1.200 m), eta azkena, 12 urte-

tik gorako maila (1.280 m). Azken kasu honetan, 12 urtetik aurrerakoetan, haurrak beraien artean elkartu daitezke bikotea egiteko.

Lehenengo lau lasterketak Etxarri Aranazko udaletxe aurreko plazan izango dira. Azken ibil-

bidea, 12 urtetik aurrerakoena, ikastola berrira joan etorria izango da, Utzubar Txikiraino hain zuzen. Izan ere, lasterketa honen helburuetako bat ikastola berria eraikitzen laguntzeko baliabideak bilatzea da. Ildo honetan, Andra

Marik bere eskerrik beroenak eman nahi dizkie lasterketako babesle den Naparpelleti eta probako laguntzaileei: Etxarri Aranazko Udala, Berria eta DYA.

Parte hartzerantz animatu

Lasterketa herrikoia eta irekia da, eta nahi duen guztiak parte hartu dezake. Andra Mari ikastolak Sakanako eta inguruko eskualdetako haur guztiak parte hartzerantz gonbidatzen ditu. Lasterketa guztiak bukatu ondoren auzatea izango da partehartzaile guztientzat. Gainera, partaide guztiei argazki bat egingo zaie, gero opari jasoko dutena.

Izema emateko

Egunean bertan, igandean, udal txeko estalopean eman daiteke izena, goizeko 10:00etatik aurrera.

Mendi lasterketa

Sakana Bizirik, Nafarroako txapeldunordea

IGANDEAN JOKATUTAKO IRATI MARATOI ERDIAN JOXEJA MAIZA ETXARRIARRA 8.A IZAN ZEN. PROBA NAFARROAKO KLUBEN TXAPELKETA ZEN ALDI BEREAN, ETA SAKANA BIZIRIK TALDEA BIGARRENA SAILKATU ZEN

Sakandarrak 2. Irati Maratoi Erdian (21,2 km)

1.	Ismail Razga	1:42:56
8.	Jose Javier Maiza	1:57:14
13.	Aritz Ganboa	1:58:43
22.	Mikel Berastegi	2:01:53
32.	Mikel Satrustegi	2:05:54
34.	Mikel Rubio	2:06:15
36.	Aitor Hernaiz	2:07:07
41.	Mikel Sasiain	2:09:12
43.	Juan Jose Armendariz	2:09:51
52.	Ruben Moral	2:13:17
62.	Mikel Iriarte	2:16:07
101.	Fran Araña	2:25:31
106.	Josebto Albizu	2:27:34
187.	Jose Antonio Salgado	2:48:09
225.	Javier Bados	3:06:00



Sakana Bizirikekoak ospatzen. SAKANA BIZIRIK

Gauza jakina da mendi lasterketek zaletu ugari dituztela Sakanan. Zaletuak eta kirolariak. Geroz eta gehiago dira mendi lasterketetan aritzen diren sakandarrak, eta maila bikaina erakusten dute gure korrikalariak.

240 korrikalarik hartu zuten parte Iratiko oihanetik, Irabia urtegitik, Akerriatik eta beste hainbat paraje ederretatik pasa-

tzen zen 2. Irati Maratoi Erditik. Bezperan I. Goizutrail proba irabazi zuen Ismail Razgak sekularako errezitaldia eman zuen eta lehena iritsi zen helmugara (1:42:56), Raul Rodari 5 minutu aterata (1:47:54). Emakumezkoetan Leire Fernandezek eta Laura Solak lehia estua izan zuten eta Leire Fernandez nagusitu zen. 14 sakandarrek parte hartu zuten

proban eta Joxeja Maiza izan zen azkarrena, helmugan 8.a izan eta gero (1:57:14). Iratiko proba aldi berean Nafarroako Klub Txapelketa zen. Txurregi izan zen talde onena (5:40:46) eta Sakana Bizirik taldea txapeldunordea (6:06:30), Aritz Ganboa, Mikel Berastegi eta Mikel Satrustegik egindako denbora bikainei esker. Zorionak!

11. Lakuntza-Aralar mendi lasterketak ibilbide aldaketa



Ekainaren 8an jokatu da eta izena ematea zabalik dago ekainaren 2ra arte

11. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa ekainaren 8an jokatu da, 9:30ean (24,7 km, 2.308 metroko desnibelarekin. Kadeteek eta juniorrek 16 km). Igoera mantenduko da eta lur mugarietara ino iritsiko dira mendizaleak (1.431 m). Desako Borda eta Pagomari (1140 m) atzean utzita, hementxe helduko da berrikuntza, mendizaleak Aranguneko portutik jaitsiko baitira Lakuntzarantz.

Izema emateko

Ekainaren 2ra arte, www.lakuntza-aralar.com webgunean. Maiatzaren 23tik aurrera federatuek 25 euro eta federatu gabekoei 30 euro ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiagorako: 618 88 30 77 edo 677 67 44 51 telefonoetara hots egin.

Zabalarte eguna

Zabalarte Klubak Zabalarte eguna antolatu zuen larunbatean. Mendi buelta polita egin ondoren bazkaltzera bildu ziren mendizaleak.

Gorka Santesteban bigarrena I. Hiru Mendi Trailen



Larunbatean I. Hiru Mendi Trail mendi lasterketa hartu zuen Atarrabiak. Proba luzean (27 km) Ion Sola txantrearra izan zen irabazlea (2:17:31), Gorka Santesteban etxarrendarraren aurretik (2:23:00). Andoni Azanza 24.a izan zen (2:47:36) eta Igor Artieda 32.a (2:52:09).

I. Goizutrail

Larunbatean I. Goizutrail lasterketa jokatu zen (21,5 km). Ismael Razgak irabazi zuen proba (1:47:21). Evaristo Noveleta 11.a sailkatu zen (1:59:16), Aritz Pellejero 28.a (2:11:50) eta Ion Zabaleta 76.a (2:34:39).

Areto futbola

Arbizuk eta Racing San Migelek nahi dute Futsalsakana Kopa

Finala Uhartre Arakilen jokatuko da, ostiralean, 20:00etan

Ostiralean Futsalsakana Kopa final erdiak jokatuko dira Uhartre Arakilen. Arbizuk eta Racing San Migelak lehenengo finala jokatuko dute. Arbizuk eta Racing San Migelak lehenengo finala jokatuko dute. Arbizuk eta Racing San Migelak lehenengo finala jokatuko dute.

Beste finalerdian Uhartre Arakilgo bi talde lehiatu ziren, Racing San Migel eta Aralar Mendi 69. Partida oso lehiatua izan zen, eta 3. Minuturako bana berdindu zuten bi taldeek. Bi atezainek geldialdi ikusgarriak egin zituzten, eta atsedendaldira aldeko 3-1ekoarekin joan ziren Racingekoak. Bigarren zatian parez pare aritu ziren bi taldeak, baina Racingek 3 gol egitea lortu zuen eta 6-1 gailendu ziren.

Final handia, ostiralean

Arbizuk eta Racing San Migelek jokatuko dute Futsalsakana Kopa finala ostiralean, 20:00etan, Uhar-



Arbizuk eta Racing San Migelek ligako finala jokatuko zutenekoa.

te Arakilgo kiroldegian. Gogoratu Futsalsakana liga edo txapelketan ere bi taldeek jokatuko zutela txapela, eta, kasu horretan, partidaren berdindu ondoren penaltietan Arbizuk gailendu zela. Beraz, koparekin

errebantxa hartunahiko du Racing San Migelek eta, bere aldetik, bere bigarren titulua lortu nahiko du Arbizuk. Futsalsakana txapelketako bi talde onenetakoen final lehiatu eta ikusgarria espero da, hortaz.

Mendia



Gartziandiak Baltoroko trekkinga ekarriko du Olaztira

Gaur, 20:00etan, Kultur Etxean

Juan Gartziandia olaztiarrak Baltoroko egindako trekkingari buruzko proiektzioa eskainiko du gaur, ostiralean, 20:00etan, Olaztiko Kultur Etxean, Olaztiko Aritu Euskara Taldeak.



Beriainera Iñaki Otxoa de Olza gogoan

Igandean, 11:00etan Guarreinen

Iñaki Otxoa de Olza Sakana lagunek haren oroimenez Beriainera joko dute igandean, maiatzaren 25ean. Goizeko 11:00etan Guarreinen hitzordua jarri dute, Annapurñan hil zen mendizaleari omenaldi txikia egiteko.

Botxa

Zortzi talde lehiatuko dira Iratxo Botxa Txapelketan

Ekainaren 20an jokatuko dira finalak

Aurreko igandean hasi zen Iratxo Botxa Txapelketa. 8 taldek emandute izena Irurtzungo Iratxo Botxategian jokatzen ari den txapelketarako. Botxa petanka antzeko jokoa da, Irurtzunen makina bat zaletu dituen. 8 taldeak bi multzotan banatu dituzte. A multzoan Tirillas, Alejandro-Guillermo-Iñigo, Erik-Agustino-Xabier eta Lirainak taldeak daude eta B multzoan Tximeleta, Xabier-Gelix-Migel, Desesperados eta AHTrík ez. Maiatzaren 31ra arte ligaxka jokatuko da, eta gero final laurdenen, aurrefinalen eta final handien txandak izango dira.

Asteburuko partidak

Ostiralean 19:00etan: Desesperados / AHTrík ez
20:15ean: Tximeleta / Xabier-Felix-Migel
Larunbatean 19:00etan: Tirillas / Erik-Agustino-Xabier
20:15ean: Alejandro-Guillermo-Iñigo / Lirainak
Igandean 19:00etan: Tximeleta / Desesperados
20:30ean: Xabier-Felix-Migel / AHTrík ez

Areto futbola



Imanol Ezeverrik gol bat sartu zuen.

Magnak denboraldiari agur

IRURTZUNDARREK EZIN IZAN ZUTEN MARFIL SANTA COLOMAREKIN ETA PLAY OFF-ETATIK KANPO GERATU DIRA

Magna Nafarroa Xotak ezin izan zuten Marfil Santa Colomaren kontra. Ligako titulua erabakitzeko play off-etako final laurdenetan erori egin da Imanol Arregiren taldea. Iruñean jokatutako joaneko partidaren 3-6 gailendu ziren kataluniarak, eta larunbatean jokatutako itzulerako partidaren ere hala gertatu zen, emaitza errepikatu baitzen.

Magna Nafarroa Xota irabazteko atera zen hasieratik. 5 minututan Ezeverrik eta Jesulitok taldea 0-2 aurreratu zuten. Hala ere, Marfilek tarte gutxian partida bina berdintzea lortu zuen. Rafa Usinek 2-3 aurreratu zuen Irurtzungo taldeak. Baina Marfilek, atzera ere, berdintzea lortu zuen. Bifalantzaz garrin ondorior penaltya jaurtiki zuen Marfilek, eta atsedendaldira 3-3ko berdinketarekin joan ziren. Bigarren zatian oso zuhur jokatuko zuten bi taldeek. Partida bukaeran Imanolek jokalaria atezainaren formula erabili zuen, baina ez zen ongi atera. Marfilek bigona sartu zituen eta 6-3 irabazi zuen.

Arregi: "Beraiekin hobea izan dira xehetasunetan"

Imanol Arregi arbitroaren erabakiekin oso kritiko azaldu zuen. "Ez dugu galdu arbitroaren kulpagatik, baina gure bosgarren falta, penalty bikoitza sortzen duena, barre egiteko modukoa da, hori ezin da play off batean adierazi" azaldu zuen. "Aukerak izan ditugu, baina beraiekin askoz lasaiago jokatuko dute, markagailuan aurretik zeudelako" gaineratu zuen. Defentsa akatsak galdu izanaren gaitortzat jo zituen. "Iruñean eta hemen gehiago lortu ahal izan genuen, baina beraiekin hobea izan dira xehetasunetan" ondorioztatu zuen entrenatzaileak.

Denboraldiari agur esan diote Imanol Arregiren mutilek, merezitako atsedena hartzeko. Primerako denboraldia egin du Irurtzungo taldeak. Ligan 5. sailkatu ziren, postu bikaina, ligako aurrekontu xumeenetako bat dutela eta jokalaria asko harrobitik sortutakoak direla kontuan hartuta.

Mendi txirrindularitza

19. Altsasuko BTT Zeharkaldia ate joko

Ekainaren 8an jokatuko da. Izena ematea zabali dago www.clubciclistaburunda.com web gunean

BTT ibilbide ez lehiakorretan oso ezaguna eta preziatua da 19. Altsasuko BTT ibilbidea. Aurten ekainaren 8an izanen da, 9:00etan abiatuta. 49 km-ko ibilbidea prestatu dute Burunda klubekoek, eta ibilbidea berria izango da, orain arte inoiz pasatutako eremuetatik pasako baita proba.

Ibilbidea

Altsasuko aterata Zapardiko pistara joko dute bikerrek, Orobeko harrobi zaharrera egiteko. Sorzarretan ibaia gurutzatuta, Dorre Txikira igoko dira. Iturrian buelta hartu eta Ulaiarren lehen horridura gunea izango dute txirrindulariek. Segidan, Arania igoko dute eta ondoren San Pedro, Dantzaleku eta Urdiaingo igerilekueetatik pasako dira, ondoren ia Bakaikuraino egiteko, Gerra lantegiraino. Iturmendiko ermitatik



Altsasuko bidea hartuko dute, Otadiko Santokristoko ermitatik plazara iristeko.

Izena emateko

Burunda taldeko web orrialdean, www.clubciclistaburunda.com web gunean, ekainaren 5era arte. Federatuek 17 euro eta federatu gabekoek 21 euro. Egunean bertan, 7:45etik 9:00etara (federatuek 21 euro eta federatu gabekoek 25 euro). Izena ematen duten lehen 600 bikerrek opari nagusia jasoko dute.

Irristaketa

Beste bi garaipen Rural Kutxarendako

Lastrak Markinan eta Daniel Lopezek Baionan irabazi dute. Bestalde, Rural Kutxako Migel Angel Benito bigarrena izan da Espainiako Kopan

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Jonathan Lastrak irabazi zuen Markina-Xemeinen jokatutako Sabin Foruria Memoriala (104 km), Euskaldun Txapelketarako baliagarria zen proba. Lastrak bakarrik gurutzatu zuen helmuga, 2 segundora Zirauna taldeko Elias Vega zuela. Rural Kutxako Iker Azkarate 8.a izan zen. Bestalde, Galiziako Txa-

pelketa jokatuko zen Baionan. Rural Kutxako Daniel Lopez azkarrena izan zen, Mutua Levante-Delikia taldeko Martin Lestidoren aurretik.

Espainiako Kopan bigarrena

Bestalde, Unai Intziartek (Gipuzkoa) irabazi du elite mailako Espainiako Kopa (638 puntu). Rural Kutxako Migel Angel Benito bigarrena izan da (614 puntu), txapelketako 23 urtez azpiko onena, eta Aitor Ibarguren hirugarrena (602 puntu).

Aizkora

Nazabal Urrezko Aizkorako final handian egongo da

Etxarriarra eta Atutxa finalerako sailkatu dira eta hirugarrena nor izango den Rekondo, Ander Etxeberria eta Felix Etxeberriaren artean erabakiko da, bihar, Uhartan



Beste final bat Nazabalendako.

Asteburuan Urrezko Aizkorako finalera nor sailkatuko zen erabakitzeke bi finalerdi jokatu ziren. Urduñako finalerdian Atutxa (17:06) gailendu zitzaizen Erasuni (18:25) eta Lopezi (19:49). Eta igandean Deustun jokaturako finalerdian Floren Nazabal izan zen onena (17:51), Jon Rekondo (18:46) eta Mugertza II.aren (20:49) aurretik.

Azpeitiko final handian hiru aizkolari lehiatuko dira. Nazabalek eta Atutxak lortu dute tokia. Hirugarren aizkolaria bihar, larunbatean, Uhartean jokatuko den hirugarren finalerditik

aterako da: Jon Rekondo, Ander Etxeberria eta Felix Etxeberria lehiatuko dira azkeneko txartelaren bila.

Orientazioa

185 ikasle ikastolak antolatutako orientazio proban

Bihar burutuko dute proba, Dantzalekun, 9:30ean hasita

Bihar makina bat neska-mutiko Altsasuko eta Urdiaingo dermioletan barna aurkituko ditugu, Iñigo Aritzta ikastolak antolatutako orientazio proba egiten. Iñigo Aritzta, Andra Mari, Paz Ziganda eta Jaso ikastoletatik hurbildutako 185 ikasle bilduko dira gaur, ostegunean, 17:30ak aldera Altsasuko plazan. Iruñeko ikasleak trenetx hurbilduko dira. DBHko 2. zikloko 4. mailako ikasleak dira guztiak. "Euren artean elkar ezagutzen ez dutenez, ikastola ezberdinetako ikasleak nahasiz taldeak egiten ditugu, eta ondoren, ezagutzajolasak" adierazi digu Iñigo Aritzako Jon Lagosek.



Orientazio probaren logotipoa.

ariko dira orientazio proban, eta zirkuitu bakoitza 15 taldek osatu beharko dute. "Taldea bakoitzari mapa eta iparrorratza emango diegu eta ibilbidea osatu beharko dute. Postaz posta klikatzen joan beharko dute, eremu guztietatik pasatzen direla egiaztatzeko. Kontrol puntuak izango ditugu, bertatik ikasleak pasatzen direla ziurtatzeko" gaineratu du Lagosek.

Proba bukatu ondoren bazkaltera bilduko dira guztiak eta ondoren, arratsaldean, Iruñeko ikastolakoek trena hartuko dute Iruñerantz. Horrela despedituko da jardunaldia.

3 zirkuitu

Ikastolan afaldu eta ikastolako frontoian emango dute gaua, gau festa egin ondoren. Bihar, ikastolan gosalduko dute eta goizeko 9:30etarako prest egon beharko dute, orduan abiatuko baita orientazio proba. "Proba Dantzalekun hasiko da. 3 zirkuitu prestatu ditugu. Mugak Urdiaingo baserriak, Santa Luzia Sakan eta Ulaiar dira, nolabait esateko. Lauko taldeak

Asteartean Sakan eta Aguraingo ikastetxeen orientazio proba

Ikastetxeek Mank-en laguntzarekin antolatuta, asteartean, Arbizun, 10:00etan

Maiatzaren 27an, asteartean, goizeko 10:00etan, Sakanako eta Aguraingo ikastetxeek Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin antolatutako orientazio proba burutuko da Arbizuko basoan, Zubaat eta Sandindegi aldean.

Altsasuko Institutuko 54 ikaslek (DBH 4), Aguraingo 40ek (DBH4) eta Andra Mari ikastolako 35ek (DBH3) parte hartuko dute. Hurrengo urtean Iñigo Aritzta ikastolak eta Jesusen Bihotzak parte hartzea aurreikusten da. Mapa eta iparrorratza eskuan, basoan segurtasunez ibiltzen ikasiko dute ikasleek.

MAIATZAK 24 2014

II - RALLYSPRINT

OLAZTI URBASA

SAKANA MOTORSPORT

II.GUAIXE SARIA

ORDUTEGIA

15:30 **HASIERA**

1. tramo

ORDUTEGIA

2. tramo

3. tramo

4. tramo

ANTOLAKUNTZA

Guaixe.net

OLAZTIKO UDALA

SAKANA MOTORSPORT

BUKATUTAKOAN KONTZERTUAK GAZTETXEAN ETA CLINKER TABERNAN EGONGO DIRA

RESTAURANTE CLINKER
JATETXEA

Grúas KINTÍN
670626493

murrplastik

Ramos y Cia

IGOROIN

EULATE
Servicios Eléctricos

Txartel
Imprenta digital

maksa
maquinaria sakan

LASTADI S.L.

TX

Arbizu

RAC

aixisku

salmen etxea

LASTAI
Gasolindegia

Zozketa

Rallyra etortzen diren guztien artean 2 lagunendako 2 bazkari.

IRU-BIDE

Iru-bide taberna, jatetxea eta hotela

Errrota kalea s/n 31839 ALTSASU (Nafarroa)

Tel. 948 468 876

Olatzea

jatetxea eta landa hotela

Errrota kalea s/n 31839 ARBIZU (Nafarroa)

info@hotelolatzea.com

Lands Hotel

Sokatira

Sokatira festa Etxarrin

NAFARROAKO 4x4 SOKATIRA TXAPELKETA, GIZONEZKOEN 320 KILOETAN AMAIUR A IZAN ZEN TXAPELDUNA, EMAKUMEZKOEN 265 KILOTAN BASABURUA, ETA KADETEETAN ULTZAMA IZAN ZEN 2. JARDUNALDIKO ONENA



Etxarri Aranazko pilotalekuak goma gaineko Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa hartu zuen larunbat arratsaldean. Txapelketa 2. jardunaldia zegoen jokoan. Tartean, gizonezkoen 320 kiloko txapelketa eta emakumezkoen 265 kiloko txapelketa erabaki ziren.

Gizonezkoetan Amaiur A izan zen txapelduna, Beti Gazte B, Amaiur B, Txantrea, Basaburua-Imotz, Beti Gazte A eta Berriozar taldeen aurretik. Emakumezkoetan Basaburua-Imotzek jantzi zuen txapela, Txantrea, Berriozar eta

Amaiurren aurretik gailendu eta gero.

Kadeteek (285 kilo) 4 jardunaldiko ligaxkan jokatu dute txapelketa. Etxarrin 2. Jardunaldia jokatu zuten eta Ultzama nagusitu zen (4 puntu), Andra Mari (3 puntu), Berriozar (2 puntu) eta Puterri (puntu bat) taldeen aurretik. Larunbatean 3. Jardunaldia jokatu da Berriozarren, 18:00etan. Horretaz gain, gizonezkoen 300 kiloko lehen jardunaldia eta emakumezkoen 245 kiloko lehen jardunaldia egonen dira jokoan.

Pilota



Agur Buruz Burukoari

NAHIZ ETA JAUNARENARI IRABAZI ETA FINAL-LAUDENETARAKO SAILKATU, ZUNTZ HAUSTURA DU ETA EZINGO DA ARITU. EZKURDIA ERE TXAPELKETA-TIK KANPO DAGO, RETEGI BIREN KONTRA 22-18 GALDU ETA GERO

Jaunarenaren kontra minduta jokatu zuen Jose Javier Zabaletak. Guardian zegoen Asegarceko Iñigo Simon medikuak partida uztera gomendatu zion. Baita Fermin Escudero bere botileroak ere. Baina aurrera segitzea erabaki zuen Zabaletak. Jaunarena aurreratu zen hasieran, baina Zabaletak sufritzen jakin zuen eta sakeei esker -6 tanto egin zituen sakez-, pilota gozatuta eta aukera zuenean tantoak despedituz, 14-22 irabaztea lortu zuen. "10-13koan partida bertan behera uztekoan egon naiz, baina partida hau nola edo ahala irabazi nahi nuen" adierazi zuen etxarrendarrak bukaeran. Baina minduta bukatu zuen eta are okerrago, lesioarekin.

Astelehenean San Migel Klinikaren erresonantzia magnetikoa egin zuen etxarrendarrak eta berri

txarra jaso zuen: I-II graduako zuntz haustura du gihar dortsalean. Haustura larria da, hilabetetik gorako sendatze epearekin. Horregatik, nahiz eta partida atzerapena eskatu, Zabaleta ezingo litzateke garaiz osatu eta Buruz Burukoari utzi behar izan du etxarrendarrak, pena handiz. Asteburuan Mikel Urrutikoetxearekin jokatzekoa zen Jose Javier, baina ezinezkoa denez, Urrutikoetxea zuzenean dago sailkatuta finalerdietarako.

Fisioterapia eta errehabilitazioa

"Triste nago, eta oinazeekin. Txapelketa uzteak pena handia ematen dit" adierazi zuen pilotariak klinikatik ateratzerakoan. Orain, fisioterapia eta errehabilitazio prozedurarekin hasi beharko du.

Ezkurdia ere txapelketatik kanpo



Joseba Ezkurdia Buruz Burukotik kanpo geratu da, final-zortzirenetan Julen Retegiren kontra galdu eta gero (18-22). Retegi Bik uste baino askoz ere gehiago sufritu behar izan zuen garaipena lortu ahal izateko, hasieran lortutako errenta ikusgarria -17-4 aurreratu zengaltzen utzi zuelako. Izan ere, hasieran arbuzuarra ez zen batere fin ibili, baina buelta eman zion markagailuari, pilotakadaz-pilotakada 17ra berdinduz. Baina hortik aurrera, Retegi Bik erantzuten jakin zuen, eta oso lehia estuan, azkenean 22-18 gailendu zen iruindarra. Aimar Olaizolaren kontra jokatu beharko du final-laudenetan. Txapelketatik kanpo geratu da Ezkurdia, baina duen guztia emanez.



22. IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA

Irurtzungo Txapelketan final laurdunen txanda

Apirilaren 17an hasi zen Irurtzungo 22. Pilota Txapelketa-Lacurale Saria. Guztira 100 pilotari baino gehiago lehiatuko dira txapelketa guztian barna. Asteburuan final-laurdenei ekinen zaie.

Asteburuko partidak

Maiatzak 23, ostirala (18:00etan Irurtzunen)

Haurrak

- Mata-Cuairan (Oberena) / Torres-Hualde (Buruzgain)
- Bastarrika-Gelbentzu (Lapke) / Osa-Iruretagoiena (Andoain)
- Barriola-Roldan (Ardoi) / Aizkorbe-Apezetxea (Goizueta)
- Telletxea-Unanue (Erreka) / Arizmendi-Insusti (Hernani)

Maiatzak 25, igandea (10:00etan Irurtzunen)

Seniorrak

- Lopez-Bergera (Irurtzun) / Zigarroa-Lucas (Titin)

Kimuak

- Imaz-Aldaz (Aldabide) / Laso-Martiarena (Irurtzun)

Benjaminak

- Beloki-Huarte (Huarte) / Rete-gi-Maiza (Paz Ziganda)

Maiatzak 27, asteartea (19:00etan Irurtzunen)

Jubenilak

- Bakaikoa-Medina (Erreka) / Elizegi-Santzez (Aurrera Saiaz)
- Olano-Azanza (Zugarralde) / Urretabizkaia-Telletxea (Aurrera Saiaz)



Ongay eta Gorriti Federazioen artekoan aurrera

Asteburuan Espainiako Federazioen Arteko Torneoako jardunaldia jokatu zen. Nafarroak Gaztela Leon izan du aurkari. Buruz Burukoan Armendarizek Alvaradori irabazi zion (2-10 eta 9-10). Eta Binakakoa Alberto Ongay satrustegiarrak eta Gorriti uhartearrak Gaztela eta Leongo Ibañez eta Diez menperatu zituzten (10-7 eta 10-3).

ONGAYK ETA ARMENDARIZEK JOKATUKO DUTE NAFARROAKO OPENEKO FINALA

Nafarroako Buruz Buruko Openeko finalistak Irurtzun klubeko Alberto Ongay satrustegiarrak eta klubbereko Armendariz dira. Finalerdian Armendarizek 18-10 irabazi zion Matute III.ari eta Alberto Ongay 18-14 gailendu zen Mitxelenaren aurrean, 291 pilotakada izan zituen partida oso lehiatua. Nahiz eta Ongayk eskuekin nahiko justu bukatu, finala gaur, ostiralean, jokatu dute.

MAIATZAK 30-31 EKAINAK 1

Sakatxartel asteburua



Asteburu honetan erabili **Beleixeguaixe txartela** eta sari hauen zozketan parte hartuko duzu!

SARIAK

- 1.saria:** 2 sarrera Urbasa Abentura parkerako eta 2 lagunentzako bazkaria Urbasako Kanpinean
- 2.saria:** Erein argitaletxeko liburu lote bat + Beleixeguaixe txartel bat



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com




Rufo Oraa Gastaminza

Beti egongo zara gure bihotzean.

Zure alaba, semea, bilobak eta birbilobak

Olaztin, 2014ko maiatzaren 15ean.



Marcos Ganboa Bergera

Gure oroimenean.

Eskerrik asko une hauetan hurbil egon zareten guztiei.

Zure familia



Antonio Goikoetxea Fernandez

Antonio Jimenez Mendiola

Maria del Mar Albarrazin Razkin

Ismael Igoa Ezkutari

Maria Angeles Aiestaran Goñi

Maria Angeles Sanz Aizpun

Fidel Salinas Ferrer

Parrandan ere gogoan zaituztegu.

1960ko kintoak

Irai

IRAI... Haize-erauntsiek nola zanpa dezaketen, baina ez apurtu; haizeak nola eraman dezakeen... eta nola ekarri berriro taupada bakoitzean...

IZU LO, MAITIA



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin

948 564 275 telefonora

Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Jose Miguel Olano

IV. urteurrena

Beti egongo zara gure bihotzean.

Zure familia

Urtemugako meza maiatzaren 25ean, igandean, goizeko 11:00etan Lakuntzako elizan.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

LANA/ NEGOZIOAK
LAN ESKAINTZA
Begirale bat bilatzen da. Urdiaingo Udaren Euskaraz kanpainarako. Curriculuma ekainaren 6a baino lehen Urdiaingo udalera eraman.

Aisialdiko monitoreak behar ditugu. Arbizuko Udala. Curriculuma aurkezteko epea udaletxean ekainaren 6a arte edo info@arbizu.info helbidera bidali.

Higiezinak
LOKALAK
ERRENTAN EMAN

Liburudenda bat eskualdatzen da. Sakanan. Telefonoa: 661 26 46 51.

Lizarragako elkarteak alokatzen da. Lizarragako San Adrian festetan, ekainaren 14an, 15ean eta 16an, "Aziturri Txokoa" elkarteak alokatuko dugu. Ekainaren 1ean arratsaldeko 18:00etan enkantea egingen dugu. Gutxieneko alokairua 600 €koa izanen da.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK
OPATUTAKOAK
Giltza urdin bat soka urdina duena. Arbizun opatu da. Galdu duenak Almenteren etxera joan dadila bila.

GALDUTAKOAK
Samsung telefono mugikorra. Galdu da Etxarri Aranatzan. Opatu duenak, mesedez, Guaixera eraman edo hots egin dezala, telefonoa

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

948 56 42 75.

Ikastaroak
AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5;

JAIOTZAK

- **Irantzu Garcia Azcona,** maiatzaren 11n Irañetan.
- **Daniel Garcia Rodriguez,** maiatzaren 16an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Rufina Iriarte Berastegi,** maiatzaren 13an Arbizun.
- **Maria Rosario Miranda**

Mundiñano, maiatzaren 13an Etxarri Aranatzan.

- **Pedro Jose Zelaia Auzmendi,** maiatzaren 14an Bakaikun.
- **Rufo Oraa Gastaminza,** maiatzaren 15ean Urdiainen.
- **Marcos Ganboa Bergera,** maiatzaren 19an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Lehiaketak
Arbizuko San Juanetako kartel lehiaketa. Edozeinek parte har dezake eta edozein teknika erabilita. A3 tamainako lanak, "San Juanak Arbizu 2014" testua agertu behar da. Saria 200 €. Lanak garagarriaren 2rako aurkeztu behar dira udaletxean. Informazio guztia www.arbizu.info web orrian.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

kultura >>

Arrebotek zeresana emango du

Talde altsasuarrak disko berria kaleratuko du gaur

Arlo guztietan denetarik pixka bat". Iñigo Muñoa Arrebote taldeko kideak *Leihotik* diskoa deskribatzeko erabiltzen dituen hitzak dira. Denetarik musika aldetik eta denetarik abestiengaietara buruz. "Oinarrian rumba dago baina beste hainbat estilo jorratu ditugu oraingoan". Diska honekin pertsonen kontzientziak "modu batean edo bestean mugitzea" nahi dutela adierazi du Muñoak.

Zazpi urte pasatu dira Arrebote taldeak lehenengo diska kaleratu zuenetik. Bigarren diskoa kaleratuko dute laister: "lan bakoi-tza desberdina da, momentu batean eginga eta sentimentu batzuekin. Adina ere aldatu da", adierazi du Muñoak. Taldekide berriak gehitu dira ere: Ainhoa (ahotsa) eta Josetxo (bateria).

Maiatzaren 5ean kaleratu nahi zuten diskoa, baina "hainbat arazoren ondoren" gaur kaleratuko dute *Leihotik* diskoa. Garagarrilaren 21ean diskoaren aurkezpena egingo dute Iortia Kutur Gunean.

Leihotik

Disko berria Altsasuko Itxura estudioetan grabatu dute. "Biastetan grabatu dugu eta oso ondo.



Fran eta Fontarekin gustura. Artistak dira", adierazi du Ainhoa Ramirez de Aldak. Bigarren abestiak diskoari izena ematen dio, *Leihotik*. "Iñigori gehien gustatzen zaion abestia da".

Zazpi abestik osatzen dute diskoa. Gaiak anitzak dira: amodiozkoak, eguneroko gauzak, gizartean gertatzen diren gauzei buruzkoak... "Denetatik. Euskaraz eta gazteleraz", azaldu du Muñoak. Arrebote taldea rumba soinuengatik nabarmentzen da, eta rumbarekin jarraituko dute baina hainbat estilo gehiago jorratu dituztela azaldu du Ramirez de

Aldak: "Rumbaren esentzia gelditzen da baina rock, ska, reggae, eta barren soinuak ere badaude".

Diskoan kolaborazioak izango direla aurreratu dute kideek, hala ere ez dute gehiago aurreratu nahi: "Sorpresa. Kirolariak, musikaren munduko jendea, aktoreak...". Leihotik abestia egiteko hamabost umeren laguntza izan dute. "Azken uneko gauza bat izan zen". Dena dela, "oso ongi" gelditzen dela gaineratu dute.

"Jendea gure proiektuaren parte dela ikusten duzunean oso polita da. Umeak abesten dutenean guztia ematen dute eta helduak



Bideoklipa

La mejor dejada bideo-klipa 2011 urtean egin zuen Arrebote taldeak. Milaka bisita izan zituen YouTube-n. "Nikuste Arrebotek ospea lortzeko modu hobereana bideo-klipa izan dela. Taldeari buruz zerbait esaten duzunean 'a bai bideo-klipenarena' esaten dute", adierazi du Ainhoa Ramirez de Aldak. Iñigo Muñoa bideo-klipak egitera "zaletu" dela aitortu du. "Horren ondoren zerbait handiagoa egin behar dugu, lehengo hobetu behar dugu". Bi bideo-klip prestatuko dituztela

aurreratu dute, "momentuz ideia asko daude, orain lan egin behar da". Zeresan emango dutela gaineratu du Ramirez de Aldak, "gizartean pil-pilean dagoen gai bati buruzkoa izango da, orduan modu batean edo bestean zeresana sortuko du". Bideo-klipak Javi Galeanok egingo ditu, Arrebotearen manager berriak. Kolaborazio "bereziak" izango ditu. Altsasun grabatuko dituzte, garagarrilaren 21ean Iortia Kultur Gunean egingo duten aurkezpenean. Sarrerak 2 euroko prezioa izango du.

umeak bezala aritzen dira. Eta hori oso polita da", dio Muñoak. Arrebotearen musika entzuten dutenak ongi pasatzea nahi dute, baita kontzientzia hartzea ere: "kontzertuetan dantzatzeko eta ongi pasatzeko abestiak daude, baita eserita eta

letrak lasai entzuteko abestiak ere", azaldu du Ramirez de Aldak.

Leo eta Iñigok egin dituzte abestiak. "Batuetan batek letra bat egingen du, eta besteak zerbait egingen dio. Edo Leok musika ematen dit eta nik letra jartzen diot".

Berastegi Nafarroako Antzerki Eskolaren ekoizpenean

Iruñeko egoitzan, Nafarroako Antzerki Eskolak gaur, 20:30ean, *Idiotas contemplando la nieve* antzezlanarekin mustuko du. Dozena erdi aktorek jokatu dute obra eta haien artean dago Zoila Berastegi arbizuarra. Javier Perez Eguarasen eta Fuensanta Onrubieren esanetara ariko dira aktoreak. Gaurko mustutzea eta gero, bihar eta etzi 20:00etan emanen dute obra. Eta ordutegi berean errepikatuko da heldu den asteburuan.

Alejandro Ricañoren obra da taularatuko dutena. Kritikaren eta itxaropenaren artean dabil. Antzezlaneko pertsonaiak diseinuzko kafetera bategatik edo tapa duen komuneko taza bategatik maite dituztenak txikitzeko gai dira. Baina, elurra begiratzean, aldi berean, une batez lasaitu eta euren buruarekin topatzen dira.



Duten dirua edo euren ipurmasailen erosotasuna baino askoz gehiago direla dakite, une batez bada ere.

Euskal kantuen berrikuspen umoretsua

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. Eguraldi txarra badago kultur etxean izanen da emanaldia

Demode Quartetek bere bigarren ikuskizuna, *Epa!*, aurkeztuko du etzi Etxarrin. Umorez betetako ikuskizun horretan euskal kantuen a capella bertsiak, koreografia atseginak eta elkarrizketa bitxiak tartekatzen ditu laukoteak. Haien uste bat da ikuskizunaren abiapuntua: euskal "esentziak" eragina izan duela munduko gainontzeko kulturetan. Hala, countryaren, jazzaren, sanbaren, bollyboodaren edo pop modernoaren jatorria Euskal Herrian dagoela ziurtatzen dute eta horixe azaltzera etorriko dira Etxarri Aranatzera.

Mikel De La Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Roscodira Demode Quartet. Itoiz, Lertxundiedota Leteren kantuen ber-



tsioak eskainiko dituzte. Demode Quartetek 2010ean hasi zuen bere ibilbide arrakastatsua. Orduan piano, biola, gitarra eta kajoi flamenkoa lagun Aretha Franklin, Queen edo Madonnaren bertsi-

ak a capella kantatu zituzten. Bigarren emanaldirako instrumentu bakarra aldatu dute, biola esku-soinuarekin. Laukoaren kontzertua udalak antolatu duen Musika Plazan zikloko bigarren emanaldia da.

Ikasgelan egindakoa oholtzara eramán dute bertsolari gazteek

Nafarroako Bertso-
eskolen eguna ospatu
dute Altsasun

Bertsolaritza ikasteen gaitasun asko lortu daitezke: bertsolariaren eza-gutza, doinuak, neurriak, historia... eta hori barneratzen dutenean ikasleek hizkuntzarekin jolas egiten dute. Gainera, jendaurrean egoten ikasten dute, baita arreta mantentzen ere. Ikasturte honetan ikasitakoa jende aurrera eramán zuten larunbatean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean 50 bat ikasle. Gehienak hasiberriak ziren: "jendaurrean kantatzeko aukera eskaintzea nahi diegu, ikustea zer den", azaldu zuen Josema Leitza Nafarroako Bertso-eskoletako irakasleak.

Ariketa sinpleak ziren, gaiak

edo bukaerak ematen zizkieten eta bertsolari gazteek minutu batzuk pentsatu ondoren oholtzaren gainean kantatu behar zituzten bertsoak. "Bakoitzak ahal duena, bertsoa zer den probatzea nahi dugu". Haiei zuzendutako saioa zen. Bortzirriak, Baztan, Leitza, Iruñerriko eta Sakanako bertso-eskoletako kideek parte hartu zuten.

Bertso-eskolak

"Ez da erraza bertso-eskolak mantentzea beste hainbat jarduerak daudelako: kirola, musika, ingelese...". Hamar bat bertso-eskola daude Nafarroan. Sakanan Altsasun eta Etxarri-Aranatzan daude. Gehienak hasiberriak dira. Altsasun lau urtez aritu den talde bat ere badago. Gainera, Bertsolariak Irakaskuntza programaren bidez eremu euskalduneko ikasleek



BERTSOZALE ELKARTEA

ikasleekin bertsolariak ikaste-ko aukera dute. Gaur egun 1.400 ikasle daude programan.

Nafarroako Gobernuak programaren diru laguntzak kendu ditu: "Udalek eta mankomunitateek ematen duten diruarekin aurrera jarraitu dezakegu". Dena dela, programak astean 30 ordu-

ko irakaskuntza aurreikusten du, eta aurten 15 ordu baino ez dute eman. "Zaila da potentzial guztia ateratzea".

Bertsolaritza zaila dela pentsatzen den arren, edonor aritu daitezke bertsoetan: "Gauza guztiak bezala aritzea da. Guztiok daukagu gaitasuna bertsoak egiteko".

Nafarroako bertso- paper lehiaketa

Larunbatean Nafarroako bertso-
paper lehiaketaren sariak banatu
zituzten. Idoia Granizo Urbaren
altsasuarra irabazi zuen
DBH 3 eta 4 mailan.

Euskal dantza koreografia berrien lilura

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia
kultur gunean

Altsasuko Musika eta Dantza eskolak ikasturtea despeditzeko dantza jaialdia antolatu du gaurko. Martxoan Euskal Herriko herrialdeetako dantzak eman bazituzten, oraingoan berrikuntzen txanda da. Iñaki Agirre Larraza irakasleak, euskal dantzetako urratsetan oinarrituta, koreografia berriak sortu ditu eta horietan gozatzen dituzten ikasleek aukera izanen da gaur. Haur,



Matrikula epea

Maiatzaren 30era arte eman daitezke, Udal Musika eta Dantza Eskolan. Astelehenetik ostegunera, 15:00etatik 20:00etara eta ostiraletan 9:00etatik 14:00etara. Argibideak 948 564 581 telefonoan.

gazte eta helduak, bost urtetik gorako dantzariak izanen dira Iortia agertokian dantzan ariko direnak. 80 dantzari inguru guztira.

Altsasuko festen aurretik hasitako ikasturtean lortutako abileziagaurerakustez aparte, herrie-

tako festetan ere erakutsiko dute. Hala egingen dute Etxarri Aranatzan, Altsasun eta Ziurdian eta baliteke zerrendara Bakaikugehitzea. Ikasturtea despeditzear dute, baina heldu den hilean dituzten irteerak direla eta, klase batzuk izanen dituzte oraindik.

Urre eta zilarrezko dantzari pareak



Xabier Bengoetxea txapelduna eta
Naroa Otxoa txapeldun-orde izan dira

Gipuzkoako Euskal Dantzen Biltzarrak urtero aurreko eta soinu zahar txapelketa antolatzen du. Lehiaketa horretan 120 dantzari aritu dira, haietatik sei sakandar. Gainera, ligaxkako proba bat Altsasu jokatu zen.

Larunbatean jokatu zituzten finalak maila bakoitzeko 15 one-

nek. Oreretan Euskadiko Gipuzkoar Aurreko Txapelketan, adin guztietako mutil guztiak batera neurtu ziren. 7 eta 11 urte bitarteko mailan, Xabier Bengoetxea ziordiarra txapeldun izan zen eta txapeldun-ordea 15 urte bitarteko mailan. Legazpin, berriz, Euskadiko Gipuzkoar Soinu zahar txapelketako finalean txapeldun-orde izan zen Naroa Otxoa etxarriarra.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

maríaeugenia
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

**Lortu deskontuak
gure txartelarekin!**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaunak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Aske! taldearen debuta

Gazte 2 Aste jardueraren baitan kontzertua egin dute Intxostiapuntan

Bost musikari gaztek osatzen dute Aske! Hasiberriak dira, baina musikarekin harreman zuzena izan dute. Bertsoak egiten dituzte, baina udan abesti propioak osatu nahi dituzte: “Une honetan abesti bat prestatzen ari gara. Ideiak badaude”.

Intxostiapuntan emandako kontzertua hasiera baino ez izatea nahi dute.

Aske! taldea pixkanaka sortzen hasiz eta Intxostiapuntako entsegela bat lortu zuten taldea aurrera eramateko. Mikel (bateria), Adrian (baxua), Gaizka (gitarra eta gaita), Asier (gitarra) eta Imanolek (ahotsa) osatzen dute taldea. Asierrek beste talde batean jotzen zuen eta Adrian eta Gaizka musika eskolako fanfarrean daude.



“Abesti onak ateratzen badira, diskoa grabatzen saiatuko gara”. Dena dela, ideia bat baino ez da. “Pixkanaka-pixkanaka, esperien-

tzia hartzen joan nahi dugu”. Momentuz udan herrietan kontzertuak eman nahi dituzte. Gogoia badute.



Erromeria gaztetzan

Bihar, 20:00etan, Olatzagutiko Maisuenea gaztetzan

Olatzagutiko Gazte Asanbladak biharko herrian iragarritako dagoen motor festari akaberrako doinua jarri nahi izan dio. Hala, erromeria prestatu dute Maisuenea gaztetzan. Ingo al de? Taldearekin. Andoaindarrek *Roxa, Roxa* kantuen bertsoarekin egin ziren ezagun. Besteen doinuekin batera eurenak ere joko dituzten bihar. Euskal doinuekin umorea, giro ona eta freskotasuna eman nahiko dute, atzera ere, eszenatokitik.



Behin atera behar eta...

Gaur, 20:30ean Lakuntzako ostatuan

Garikoitz Kortabitarteren, Betiren, larruan sartuko da gaur Jon Zubiaga, Osoron, aktorea *Buah Txabal* antzezlanen. Unai Iturriagaren lumatik sortutako pertsonaia eguneko ordu gehienak gazteen lokal batean sartuta ematen duen Kortabitarten oinarritzen da. Osoron umorez ariko da gazteez eta eleaniztasunaren inguruko horretan.

Bakarrizketako protagonistak, Betik, 20 urte inguru ditu eta beti lokalean sartuta dagoenez, handik dator kio izen txikia. Behin kalera atera behar, parrandara, eta mugikorra galduko du. Izugarrizko tragedia protagonistarendako. Horren zergatia kontatuko du. Baita euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xelebre eta lokaletako gazteen gaineko topikoen muturreko parodia egingen du.

Arbizuk festetarako kartel lehiaketa deitu du

Garagarriaren zira arteko epea dago lanak udaletxean aurkezteko

San Juan festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Arbizuko Udalak. Sortzaileek ezin bestean honako testua sartu beharko dute: San Juanak Arbizu 2014

Parte-hartzaileek edozein teknika erabilia A3 edo haien proportzionala den neurri batean aurkeztu beharko dute lana. Lanak euskarri fisikoaz aurkeztu beharko da eta ahal izanez gero digitalear ere. Proposamenak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Kartel irabazlearen egileak 200 euroko saria eskuratuko du.

Herrixkako tragikomedia

Bihar, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko antzerki amateur zikloan aurreko konpainia batek errepikatu egingen du eta hori *El Bardo* izanen da. Pasa den urtean Lorcaen *Bodas de sangre*ren egokitzapenarekin etorri zen eta zikloaren antolakuntzan dabilen Juan Manuel Herrero, Zapak, esan digunez, “ezusteko handi haren ondoren talde honekin errepikatu beharra zegoen”. Aurten Ramon Maria del Valle Inclanen *Divinas palabras* obra taularatuko du Iruñeko taldeak.

Valle Inclanek obra horretan familia baten gorabeherak kontatzen ditu. Nano hidrozefalo bat dute eta hura herrietako ferietara eramaten dute, dirua ateratzeko. Parranda batean mozkortu eta hil egingen dute eta familiari diru-iturria bukatuko zaio eta horrek gatazka sortzen du.

Obraz

Paco Ocaña taldeko zuzendariak antzezlanaz esan du: “obra konplexua da, zaila, ez soilik errealizazioan, baita azaltzeko ere”. Egilearen hitzak ekarri ditu gogora Ocañak: “Antzerkian ez zuela sinisten esaten zuen. Bere hizkuntza zinema zela esaten zuen”. Bere obra hau eta beste batzuk irakur-



tzean testua film bat egiteko prestatuta dagoela azaldu du zuzendar-

riak: “eszenen azalpenetan antzerkian egitea ezinezkoa diren gau-

Zozketa



Teatreves zikloaren emanaldi guztien akaberan Tarima Beltza talde antolatzaileak bi sari zozketatzen ditu: Altsasuko Dendarien Elkartearen 50 euroko erosketa-txartela eta Xurrutabernen elkarteak (Arkangoa, Gautxori, Koxka, Xume, Urtzi eta Lurrazpi) emandako ardo botilak. Bihar ere hala egingen du. Pasa den larunbatean Pilar Ubedak jaso zuen saria.

El Bardo

Hogei aktore agertuko dira bihar Iortia antzerkian. Eta haietako batzuek paper bat baino gehiago jokatu dute. Hasiera batean hiruren ideia zen zortzira arte zabaldu zen. Bi muntaia poetiko sortu ondoren, *Bodas de sangre* sortzeko bikoiztu egin zentaldea. Ocañak esan duenez, “gustutzen zait muntaia, guztietan gustutzen zait jokatu dezaketen elementu guztiak nahastea: poesia, musika, interpretazioa eta, aukerabalego, dantza. Ahalik eta diziplina gehien obran sartzea”. Irizpide horrekin aukeratzen dituzte obrak.

zak kontatzen ditu”.

Akzioa pasa den mendeko 20. hamarkadan kokatzen da, Galizian. Ocañak azaldu digunez, “neurri gabeko pertsonaiak ditu, narrak eta makurrak. Jende oso arraroa. Guztia gainera gainetik gaiztakeria ikusten da. Ageri diren sentimendu nagusiak lizunkeria edota zikoizkeria dira. Heriotza jolas baten elementu gisa hartzen da. Baina beti bada puntu bat zeinetan pertsona salbatzen den”.

Antzezlanak orduko gizarteari egindako kritika duela uste du Ocañak, “gaur egunera ekarri daitezkeen gauzak era baditu”. Obrak “edonola bizirautearen” gaia lantzen du, “gauzak ongi edo gaizki dauden begiratu gabe. Aurrera egin behar da eta kitto”.

Festetako kartel lehiaketa martxan Olatzagutian

Hiru maila daude eta lanak garagarriaren zora arte aurkeztu daitezke udaletxean

Aurtengo festak iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketa martxan du Olatzagutiko Udalak. Kartelean festekin lotura zuzena duten gaiak jorrotzea eskatu du udalak, beti ere, materiala eta teknika libre erabiliz. Testu hausartu beharko da sormen lanetan: Santa Ana 2014. Olazti. Uztailaren 24tik 27ra. Del 24 al 27 de julio.

Parte-hartzaileak 11 urte arteko mailan, 12 eta 14 urtekoen mailan edo helduen mailan parte hartzeko aukera izanen dute. Lanak, plika sistema erabiliz, garagarriaren 20rako aurkeztu beharko dira udaletxean. 50, 100 eta 150 euroko sariak izanen dira maila bakoitzeko onenarendako.



PINTXO asteburuak

2014 maiatza-ekaina
23-24-25
30-31-01
19:00-22:00
A l t s a s u

2€ pintxoa
SARIAK: Sei sari 40€-koak.
Aferi bat taberna bakoitzean.
Eskuz banakako finalerako
bi sarrera pertsona batentzat.



ARKANGOA

SORGINA: Txipiroi betea bere tintan



GAUTXORI

**Antxoa musa eta pipermin mermeladazko
oliba eszenifikazioa**



KOXKA

**Bakailaoa onddo kurruskatu eta patataren
gainean, otarrainxka kurruskatuarekin**



URTZI

**Arrautza tenperatura baxuan
txanpinoi bizkotxo gainean**



XUME

ITSASLUR: Barazkidun arrosa, orburu
xafiak eta txipiroia bizkaitar saltsan



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 68%	euria: 28%	euria: 88%	euria: 90%	euria: 50%	euria: 58%	euria: 65%	
Min: 8 Max: 14	Min: 4 Max: 14	Min: 7 Max: 10	Min: 7 Max: 11	Min: 7 Max: 14	Min: 7 Max: 14	Min: 8 Max: 14	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	26	4.5	-
Etxarri A.	24.2	0.9	36.1
Altsasu	24	3	22.4
Aralar	16	3.6	24.5
Urbasa	21	0	24

: ilargiaren aldia>>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	28	5	13	19

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
2. Artazako kanpinea %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Jaione Diaz

Abeslari altsasuarra

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.

Festaz maitemindu!

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei

1. Salamancan ikasten ari zara eta han musikal batean parte hartuko duzu. Nolatan?

Salamanca ikastera joan nintzen eta bertan casting bat egin zen. Lagunek bazekiten ni abesten aritzen naizela eta aurkezteko animatu ninduten. Unibertsitateak antzerkiak egiten ditu baina musikala ez da orain arte inoiz egin. Gaur estreinaldia izango da Salamancako Juan de la Encima antzeztokian, 21:00etan. Ekainaren 20an beste emanaldi bat dugu Salamancan eta zuzendaria Madrileko sala batekin harremanetan dago; gustatzen bazaie han ere egongo gara.

2. Nolako izan zen castinga?

Nahiko konplexua. Abesti bat abestu nuen, beraiek web gunean abesten zerrenda bat jarri zuten eta nik bat aukeratu nuen eta koreografia txiki bat egin behar izan nuen. Azkenik monologo txiki bat irakurri nuen. Gogorra izan zen. Jende asko aurkeztu zen, fakultate gutxiatik: filologia, psikologia...

3. Zein da zure papera musikalean?

Castingean esan zuten 6 pertsonaia nagusi egongo zirela eta gero 10 antzezle-zerrenda, dantzariak eta abar. Ea zer gustatuko litzaidakeen galdetu eta nire ametsa abestea dela esan nien. Gero esan zidaten pertsonaia nagusi bat izango nintzela. Ezin sinetsi.

4. Zein da musikalaren gaia?

Izenburua *Rugidos en silencio* da. Oinarria gazteon gaur egungo egoera da. Argi eta garbi ikusten da gauzak gero eta zailagoak daudela, eta askotan atzerrira joan behar garela lan egitera. Egoera hori islatzen da. Musikalaren barruan mai-

tasun istorio bat dago, eta ni bertan nago. Ikasleen grebak egongo dira... Ikusleak kontzientzia hartzea gaur egungo egoeraz, pentsaraztea.

5. Musikal batean parte hartzen duzun lehenengo aldia da?

Bai. Nire ahizpa Aintzanerekin eta Los del Rayo taldearekin aritzen gara eta kontzertuak ematen ditugu. Baina antzerkia eta abestea batera lehenengo aldia da. Aldea dago kontzertu batean aritzean edo musikal batean parte hartzean. Abesterakoan bakarrik ahotsean zentratzen zara, baina musikal batean dantza daukazu, koreografia bat, gero eszenak daude, gidoiarekin... konplexuagoa da. Eta hori guztia buruz ikastea, hori da okerrena.

6. Ordu asko entsaiatu duzue?

Astelehenero eta asteazkenero bi ordu, eta ostiraletan goiz osoa, 9:00etatik 14:00ak arte. Urrian hasi ginen gorputzarekin mugimenduak egiten eta kontaktuan jartzen. Urtarriletik aurrera eszenak, koreografiak, musika, eta abarrekin topera hasi ginen.

7. Noizbait interpretazio ikastaroren bat egin duzu?

Inoiz ez. Musika eskolan urte asko egon naiz, biolina jotzen nuen, baina utzi dut jada. Gustatuko litzaidake interpretazio ikastaroren bat egitea. Gogorra izaten ari da atzetik lan asko dagoelako, baina esperientzia polita izan da. Zuzendariak esan digu beste proiektu bat duela buruan.

8. Profesionalki abeslaria, edo orain interpretazioan sartzen zarela, aritzea pentsatu duzu?

Nik uste zaletasun bat dela. Ni karrera bat egiten ari naiz. Baina beti gustatu izan zait musika eta txikia nintzenetik aritu naiz eta orduan aukera hau ezin nuen galdu. Oraindik ezin dut sinetsi.

9. Familiak zer esaten dizu?

Aita abeslaria da eta orain talde batean jotzen du; orduan bera poz-posit dago. Ama ere oso pozik dago baina berak esaten dit lehenengo ikasketak daudela. Baina oso pozik daude eta ikusteko irrikitan. Salamancara etorriko dira.

10. Zuretzako zer da abestea?

Niretzat abestea barnean daukadana ateratzea da. Oso lotsatia naiz eta kostatzen zait irekitzea; musikaren bitartez, nik uste, lortzen dudala. Sentimenduak ateratzea. Interpretazioa hasieran kostatzen zitzaidan; 16 pertsona elkartzen ginen hasieran ezezagunak zirenak. Gainera, nirea maitasun istorio bat zen, eta hasieran zail samarra izan zen. Baina ikasi dugu gorputzarekin nola aritu, mugimenduak azalazten. Antzerkia dela ez ahazteko gogorarazten digute, abesten zentratu behar garela baina ez ahazteko jendeari istorioa kontatu behar diogula.

11. Salamancan abesten jarraituko zenuela pentsatzen zenuen?

Ahizpak esan zidan ez ahazteko hemen talde bat dudala. Ez dut ahazten, baina hona hiru aste burutik behin etortzen naiz, orduan oso zaila da entsaiatzen jarraitzea. Salamancan lagun batek esan zidan bere pisukideek musika jotzen zutela. Han hasi ginen eta talde bat sortu genuen. Estudioan grabatzen ibili gara.